

# ELKARTUZ

ELKARTUZ TAILERREN SINTESIA  
EUSKAL KULTURAREN DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

2021eko URRIA - 2022ko APIRILA

# ELKARTUZ diagnosi lanaren sintesia

*Egilea: Hélène Charriton - 2022ko ekaina*

Honako sintesia helarazten dizuegu euskal kulturako eragileen dinamika eta berezko beharren partekatzeke.

Euskal kulturako eragile terminoa erabiltzen dugu hainbat arlotan (kantua, dantza, musika, antzerkia, zinema, bertsolaritza, arte bisualak, literatura eta abar) praktikan, antolaketan edo transmisioan engaiatuak diren pertsona fisiko zein juridiko, profesional zein amaturren izendatzeko.

## 1. AURKEZPENA

Hastapenean, Elkartuz ideia jalgi zen diagnostiko partekatu baten egiteko xedearekin, eta eragileen beharren ezagutzeko, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin lankidetzan. Guzti horrek ahalbidetuko zuelakoan, arlo bakoitzean nola zeharka, arte eta kulturaren arlo desberdinen artean, harremanen indartzea eta proiektu amankomunak diseinatzea.

EKEren proiektua da kultura-dinamika eragileekin bizitzea, honako agiantzarekin: bere eskuhartzea antolatu ahal izatea sare-buruak egituratuz, zeinak inplikatuak eta koordinatzaileak izanen diren.

Euskal kulturaren aldeko ekintza amankomunaren premiaren funtsak Ipar Euskal Herriak XXI. mende hastapen honetan bizi duen testuinguruan datza, hots euskal kulturak eta euskarak bizi duten jendarte aldaketa.

EKE eta urraspidean bildu diren eragile guztiak bat datoz errateko gure kultura euskaratik bereizezina dela; are gehiago, gure kulturaren bektore nagusietako bat.

Bestalde, euskararen aldeko atxikimendua eta berpiztea diglosia egoeran ematen direnean, kultur adierazpenak hizkuntz antolamenduen (ikus EEP eta Euskal Elkargoaren proiektuak) ardatz nagusietakoa izan behar du.

Ekintzak euskararen eta gure kulturaren tradizioa, sorkuntza eta eraberritzea, hedapena eta partekatzea izan behar ditu helburu.

Ipar Euskal Herrian 60.000 euskal hiztun genituen 2016ko inkestaren arabera; hots Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko biztanleriaren %20. Euskara sostengatzeko prest azaltzen direnak (pentsa dezakegu euskal kultura ere) biztanleriaren %43 baino gehiago dira.

Ama-eskolatik lizeora euskaraz eskolaratuak diren ikasleak 15 000 inguru dira, alegia, lurralde bereko ikasleen %27 aldera. Nahitaez kultur arlo desberdinetako bakarkako eta taldeko bizipenek hezurtu behar dute ikasle horien kultur ikaskuntza.

Gainera, erakargarritasun ekonomiko eta turistiko handiko herrian bizi garenez, komeniko litzateke jadanik egunerokoan eragileek bideratzen dituzten euskal kulturarako akulturazio oinarrizko elementuak eman ahal izatea.

Haatik, presioa eta jendarte aldaketa gero eta nabarmenagoa den honetan, gure kulturaren osagai gehiegi galtzearen eta diluitzearen beldurrak pentsatzera garamatza datozen urteetan ezinbestekoa izanen dela eragileentzako ikuspegiak eta beharrak bateratzea.

Horregatik, hain zuzen, abiatu zuen, 2021eko larrazkenean, EKEk Elkartuz diagnostikoaren ariketa. Eragileei behar ziren baliabideak ezarri zizkien elkartu zitezten, mugarik gabe elkarren artean truka zezaten, denek maila berean, beren bizipen, itxaropen, behar eta arrangurez. Eta guzti hori, elkarren artean jardunbide amankomuna irudika zezaten.

*Elkartuz-en filosofia ez da erakundearekiko goitik beherako harreman batean kokatzen, bai ordea eragileak urraspidearen erdigunean ezartzea.*

## 2. METODOLOGIA

EKEren metodoa, diagnostikoan aitzina egiteko, izan da eragileak kultur arloka gomitatzea, bi gogoeta gaualditara, lehenean egoeraren argazkia egiteko eta bigarrean etorkizuna irudikatzeke.

Gaualdi horiek burutu-eta, 2022ko apirilaren 23an, larunbat goizarekin, talde guztiak kultur arlo guztiak bildurik, bakoitzak bere gogoeta lanen sintesia aurkeztu zuen.

Ariketaren antolatzeke eta nonbait hautu bat egin behar baitzen, honako kultur arloak identifikatu eta gomitatu ziren tailerretara: antzerkia, dantza eta dantzatzeko musikak, literatura, koru kantua, gaurko musikak, bertsolaritza, arte bisualak eta zinema.

Orotara, 2021eko urritik 2022ko martxora arte 16 saio edo tailer egin dira.

Hauetara 90 bat lagun hurbildu zaizkigu, bataz beste 8 eta 10 lagun izanik tailer bakoitzean (ikus 1 eta 6 eranskinak).

16 tailerak buruturik, apirilaren 23ko aurkezpena prestatzeko saio bat proposatu zitzaizen eragileei. Aurkezpen amankomun horretan berrogeita hamar bat pertsona izan zen.

## Tailer guztiek gidoi bera segitu zuten:

- **Lehen gualdia: Testuinguruaren, metodologiaren eta kontsignaren aurkezpena (ikus 5. eranskina).**

Partehartzaileak 3 eta 4ko talde txikitan banatu ziren, beren arloaren ikuspegitik bost gai nagusi jorratzeko: ondarea, eraberritzea eta sorkuntza, hedapena, euskararen praktika, transmisioa.

Talde bakoitzak hogeita minutu zituen gai nagusi bakoitza bi ardatzetatik lantzeko: egoera/etorkizuna. Talde bakoitzak bere gogoetak panel handi batean zintzilikatu eta oren eta erdi iraun zuen ariketa horren buruan, denak berriz bildu ziren saioko gogoeta guztiak amankomunean ezarri eta horien lehen sintesia baten egiteko. Saio bukaerako bateratze horretan, azalpenak emateko aukera eman zitzaien baina eztabaidarako biderik eman gabe. Saio bakoitzak gutxi gorabehera 2:30 oren iraun zuen.

- **Bigarren gualdia: bigarren saioaren prestatzeko aurrekoaren sintesia idatzia (ikus 2. eranskina) partehartzaile guztiei igorri zitzaien emailaz.**

Lehen saioan atera ziren proiektzioak eta ekintza proposamenak hartu genituen abiapuntutzat bigarren gualdia animatzeko. Proiektzio eta ekintzok bi sail nagusitan banatu genituen: batetik ekintza konkretuak eta pragmatikoak, eta bestetik proiektzio edo amets idealak.

Lehen gualdian agertu ziren ekintza ideien inguruan solastu genituen partehartzaileak giroan berriz sar zitezten, eta bide batez lehen saioan egon ez zirenak jakinean izan zitezten.

Gero banakako bozketa bati ekin genion atera ziren talde ekintzarako ideien artean lehentasunezkoak agerian emateko (ikus 3. eranskina). Ariketaren egokitasuna egoera gehienetan agerian gelditu zen, gehienek lehentasunezko ardatz bertsuak hautatu baitzituzten (ikus jarraian arlokako lehentasunak).

Gero, bitan banatu ditugu partehartzaileak: pragmatikoak batetik eta idealistak bestetik, ideiak nola gauzatu eztabaida zezaten.

Tailerra amaitzeko, talde erdi bakoitzak bere ideiak aurkezten zizkion talde osoari. Ardura, idealista ala pragmatikoa izan ikuspegia, arlo bakoitzarentzat jalgi ziren ideiak eta beharrak bat zetozen.

Tailerrak euskaraz eraman dira, aldibereko interprete batekin eta EKEko zuzendariak eta kanpoko animatzaile batek dinamizaturik. Gainera, EKEko lan taldeak eskuhartze nagusia izan logistikari dagokionez, saioak prestatzeko eta saio denboran noten hartzeko.

### 3. ARLOKAKO EGOERA, BEHARRAK ETA PERSPEKTIBAK

Euskal kultura bizidunak ekitaldiak ekoizten ditu arlo guztietan, eta gehienetan boluntario eta amaturrek dituzte eskaintzen eta antolatzen. Ekitaldi horiek hamar bat eta milaka lagun artekoak izan daitezke (festibalak, kontzertuak, dantza, pastoralak eta herri antzerkia, bertso txapelketak...).

Arloak, gora behera batzuekin, historikoki eta ekonomikoki egituratuak dira baliabideen partekatzeke, federazioetan elkartzeko edo hedapen aterabideak atzemateko. Adibide zenbait ematekotan aipa genitzake dantza (IDB), bertsolaritza (Bertsularien Lagunak), koru kantua (Federazioa), zinema (Zukugailu), literatura (argitaletxeen inguruan: Elkar, Ikas,...).

Jarraian irakurriko dituzun sintesia elementuak osotasun gabeak dira, ezen ekarpen gehienak eragileen parte hartzean eta beren jardueraz duten begiradaz elikatzen baitira (ikus 5. eranskina). Halere, arlo gehienek (arte bisualek izan ezik) beren artea euskaraz komunikatzea eta hedatzea dute amankomunean.

#### ❖ Antzerkia

Amaturrak eta profesionalak elkarrekin ari dira arlo honetan, antolaketa eta gai desberdinekin.

Amaturrak (tailerretan gutxi ordezkatuak) herrietan karia berezietarako prestatzen diren proiektuetan biltzen dira (herriko festak, kabalkada, pastoralak).

Gaur egun, amatur antzerki talde bat edo bi besterik ez da gelditzen.

Profesionalei dagokienez, beren biziraupena usu publiko gazteentzako ikuskizunen egiteko laguntzen menpe dago. Euskal antzerkiaren beharra eta erronka klasikoen transmisioan, eragileen formakuntzan eta ikuslegoen sentsibilizazioan laburbildu daitezke. Ideia nagusia litzateke, Ipar Euskal Herrian zenbait eguneko festibala elkarrekin antolatzea eta bizitzea. Festibalaren xedea litzateke antzerkilari eta teknikariak formatzea eta elkarretaratzea.

Euskal antzerki profesionalari dagokionez, erronka berezia du Euskal probintzia guztietara hedatu ahal izatea.

Adierazpena lehentasunez euskaraz egiteak hedapena zaildu eta mugatzen du.

## ❖ Dantza eta dantzatzeko musikak

Euskal dantza eta datxizkion musika herrikoi taldeak, talde amaturrez osatua da, zeinek biharko dantzariak formatzen dituzten tradizioaren transmititzaile lana eginez.

Euskal erreperitorio herrikoia lantzen duten hirurogei bat talde daude, eta Ipar Euskal Herriko herri eta hiri ugarian atzemanen ditugu. Talde gehienak IDBn bilduak dira. Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak hogeita hamar bat urte daramatza federatze lanetan eta Euskal Herriko dantza federazioko kide da.

Baina euskal dantzak baditu ere talde profesional eta erdi-profesionalak, erreperitorioaren eraberritzearen eta sorkuntzaren norabideak urratzen dituztenak. Dantzari profesional batzuk berriz, beren lurraldean errotutako dantza garaikidearen esparrua lantzerantz bideratu dira.

Transmisioaren erronkan dantza tradizionalerako taldeek pedagogia eraberritzearen erronka azpimarratu dute, musika eta dantza uztartuz, elkarrekin arituz.

- Dantzariak musika ezagutzea (edo jotzea).
- Musikari eta dantzariak elkarrekin bizitzea beren artea.

## ❖ Gaurko euskal musikak

Gaurko musika deritzon arloak, tradizioz eta egokitasunez, hainbat musika estilo eta antolaketa molde biltzen ditu. Etengabe bilakaera batean dagoen arloa da, hedapen tekniken bilakaera (CDak desagertu dira), Internet eta plataformen nagusitasuna, eta pandemiak eragin duen publiko aitzineko jardueraren gainbeherarengatik.

Arloak gure herria zatitzen duen muga gainditzen du, rock eta folk tradizioen zeharkako eta dimentsio askotako ekarpenarekin. Badira musikari eta kantari profesionalak, beren arteaz bizitzea deliberatu dutenak, baina eguneroko borroka dute, ezen euskal musika, ekoizle gutxi izanik, auto-ekoizpenera behartua baita, horrek suposatzen dituen gaitasun tekniko eta ekonomikoekin.

Arlo honek gogotik irudikatu nahi du ekosistema bat, non transmisioa, formakuntza, ekoizpena eta hedapena lagunduak izan daitezkeen edo burujabe izan. Gainera, nahiago lukete emazte gehiagok dinamikan parte har balezate.

## ❖ Literatura eta kontalaritza

Dakigunez, Ipar Euskal Herriko kontalari euskaldun profesional batzuk bizi dira beren arteaz baina idazlerik ez (dakigunez) .Euskarazko liburuaren merkatuak irakurlego euskaldunaren izari urriarekin eta euskara batuaren hertsapenekin talka egiten du, batuak ez baitu muga hain erraz gainditzen. Gazte literatura da eskaera eta laguntza gehien dituen. Argitalpen elebidunen gaiak mahai gainean segitzen du.

Tailerretan agerian gelditu da arloa egituratze beharretan dela, irakurlego gehiagotara hobeki hedatzeko:

- Idazle, kontalari, bitartekari, irakasle eta argitaletxeak batuko lituzkeen antolaketa, garapen eta formakuntza plan estrategikoa.
- Ohiko kontuen transmisioa eta berrien sortzea edo konposatzea formatu berrietan (adibidez mangak).

## ❖ Koru kantua

Kantu koruan adin guzietako eragileak ditugu, baina guti gurutzatzen dute elkar. Gazteei dagokienez, bereziki kolegiotan, irakasleak edo kanpotik heldu den eragileak musika maite dutenean kolegioko ikasle kopuru ederrak biltzen dituzte programazio eta/edo ekitaldi bateratzaileen inguruan.

Helduen koruei dagokienez, federazioak hogeita bederatzi talde biltzen ditu. Denak heldu eta erretiratu ez osatuak dira. Gehienetan kantuak euskal kulturarako hurbiltze bidea eskaintzen die, baina guti dira euskaradunak.

Ohiko koru kantua ahuldurik sentitzen da, dinamika errepikakor batean bezala. Arlo honen erronka nagusia da belaunaldien arteko lotura eta transmisioa ahalbidetzea, eta publiko berriak hunkitzea. Tailerretan izan diren koru kantuko eragileek federazioaren lana azkartu nahi lukete, transmisio erronka horiei aurre egiteko.

Euskararen aldeko sentsibilizazioa ere lantzeko gaietan identifikatu dute.

## ❖ Arte bisualak

Ipar Euskal Herriko arte bisualetako ordezkariak talde heterogeneoa osatzen dute sorkuntza, sostengu eta bitartekaritzarako ikuspegi desberdinak baitituzte. Arte bisualen berezitasuna da, berez, adierazpen modu horrek ez duela, a priori, hizkuntzaren euskarria baliatzen. Horrek, adierazpena unibertsaiki ulergarri egiten du eta ondorioz zaila da arte horri "euskal" izatea lotzea.

Halere, zenbait artistek, lurraldearekin harreman zuzena dutelako, beren burua euskal artistatzat edo Euskal Herriko artistatzat jotzen dute. Eragileek Elkartz tailerren bidez arte

bisualen sentsibilizatorako eta artisten ikusgarritasunerako dinamika sor daitekeela ikusten dute, elkarren arteko sinergiari eta baliabideen bateratzeari esker.

Datozen urteetarako, Ipar Euskal Herriko artista sortzaileek sentsibilizazioa, aitortza, ekitaldien sortzea eta ikusgarritasun soziala dituzte xede.

Denek estimatu dute Euskal Kultur Erakundearen elkartzeko eman zaien aukera.

#### ❖ **Bertsolaritza**

Bertsolaritza 1980ko hamarkadatik azkarki egituratu da Euskal Herri osoan, arte herriko horren transmisioa bermatzeko.

Bertsolaritzaren erronka da bertsolari belaunaldi berriak sortzea batetik, eta bertsozaleak sentsibilizatu eta formatzea bestetik. Ipar Euskal Herrian, Bertsularien Lagunak elkarrekin du, kasik eskusiboki, bertso eskoleko formakuntza, publikoaren sentsibilizazio lana eta lehiaketaren antolatze jardura eramaten.

Arlo honek 40 urteko esperientzia du, pedagogia berezkoarekin ahozko sormena pizteko, kodeak transmititzeko, eta Hego Euskal Herrian bereziki zaletasun handia dago.

Arloak agerian eman dituen behar nagusiak artearen profesionalizatorako aitortza eta, beste kultur arlo batzuek bezala (dantza, pilota...) herrietan transmititzea lirateke.

#### ❖ **Euskal zinema**

Ipar Euskal Herrian, Zinema arlo sortu berria da, egituratze bidean dena, eta epe luzerako ikuspegia duena. Berriki, baliabideen bateratzeko xedea duen Zukugailu elkarteak sortu da.

Arloak asko ekoizten du Hego Euskal Herrian non laguntza ekonomikoak bideratzen zaizkion. Arlo honek ere bere burua "euskal" izendatzeko jarrera bateraturik ez du; euskarazko zinema, Euskal Herrian filmatutako zinema, euskal kulturatik elikatuak? Hedatzaileak, ekoizleak, egile/zuzendariak eta teknikariak biltzen dituen Zukugailuko ordezkarien aburuz, arloak luzera iraun beharko badu, ekoizpena garatu beharko da eta kostuak asimilatzeeko palankak tokian bertan atzeman.

Ipar Euskal Herriko zinemak zazpi probintzietan aitortua izateko xedea du; ikuslegoaren sentsibilizazioa eta sorkuntza ditu ortzi mugan. Euskal zinema hedatzeko ekimen guztiak begi onez ikusten dituzte eragile guztiak. Erronkak lirateke ekoizpena egonkortzeko estrategia baten pentsatzea, Euskal Herri osoan kokatzea, Hego Euskal Herriarekiko harremanak azkartzea, publiko berriak hunkitzea, barne aldean hedapena garatzea, proiektu formatu berriak asmatzea eta jada existitzen diren hedabideak azkartzea.



#### ❖ 2022ko apirilaren 23ko sintesia goiza (ikus 4. eta 5. eranskinak)

Tailerren zikloa hesteko, berrogeita hamar bat lagun bildu da, arlo bakoitzak besteei bere lan eta gogoeten berri emateko. Denek arreta handia erakutsi dute, arlo bakoitzaren aurkezpenari eta etorkizuneko garapen ametsari edo beharrei adi egonez.

**Antzerkiak**, lehenik eta behin, jardunaldi partekatua sortu nahi luke, profesionalak eta amaturrak bilduko lituzkeen antzerki festibal moduko batean. Gainera, antzerki taldeek EKEk daraman IBILKI programazioan sarbide zuzena ukan nahi lukete. Etorkizunera begira, antzerki eskola amesten dute. Transmisioa eta pedagogia aktiboa hauspotuko lituzkeen antzerki eskola.

**EKErekin lankidetzan eramateko urrats berria:** antzerki festibala antolatzea Ipar Euskal Herrian.

**Dantzak**, ordea, urtero errepikatuko litzatekeen egutegi eraberritua landuko luke lehenik, dantzari, musikari eta ikusleei irekia. Bestalde, dantzaren eragileek musika eta dantza irakatsiko lituzkeen irakaskuntza bat asmatu nahi lukete, eta horretarako pedagogia materiala sortu edo bildu beharko litzateke.

Azkenik, transmisioa indartzeko formakuntza gehiago eskaini behar dela uste dute arlo honetako eragileek. Epe luzera, berriz, transmisioa bermatzeko, egiten diren ekintza eta proiektuek zentzua ukan behar dute, pedagogia bateratua garatu behar da, dantzatzeko eta mugitzeko sugarra eta euskaraz dantzatzeko nahia transmititu.

**EKErekin lankidetzan eramateko urrats berria:** dantzaren transmititzeko formakuntzaren egituratzea.

**Arte bisualetakoek** diotenez, lehen lehenik erakusteko tokiak ireki behar dira, arte horri ikusgarritasuna eman, eremu publikoa erakustoki bilakatu. Artistak gogoeta herritarrera eramane nahi dituzte, sentsibilizazioa erraztera (haurrek, aurkezten zaizkien ekoizpenak ezagutu behar dituzte) eta bereziki sortzera. Orokorki, artisten lana eta estatusa errespetatu behar dira (lege eta bestelakoen aplikapena).

**EKErekin lankidetzan eramateko urrats berria:** hemendik bi urtera, erakusketa-ibilbide bat antolatzea Ipar Euskal Herriko 20 lekutan, arte arlo desberdinak uztartuz (arte bisualak + arte bizidunak), ekitaldi nagusi partekatu bilaka dadin.

**Koru kantuari** dagokionez, topaketa eta festibal gehiago antolatu nahi lituzkete. Beste ekintza bat litzateke koru kanturako sentsibilizazio azkarragoa egitea ikastetxeetan. Epe luzera, belaunaldien eraberritzea erronka nagusia izanen da. Gazteak kantura erakarri behar dira eta entzulego gazteari pentsatuz aritu.

**EKErekin lankidetzan eramateko urrats berria:** euskal abesbatzen federazioa indartzea.

**Literaturak** eskaintza dibertsifikatu beharko luke, bai genero, bai formatu aldetik, eta hartzaileak ere. Egitekoetan, literatura hedabideetan ikusgarriagoa izatea, liburu azoka gehiago egitea eta idazle eta beste arlo artistikoekin loturak egitea (musikak, arte bisualak, marrazkia, margolaritza, ilustrazioak, dantza...) atxiki dituzte.

**EKErekin lankidetzan eramateko urrats berria:** EKErekin lankidetzan gogoeta eta lan talde baten osatzea.

**Bertsolaritza** aspaldian egituratua da Ipar Euskal Herrian, eta Hegoaldeko federazio indartsu baten laguntza du. Bertso eskolak oso dinamikoak dira. Ipar Euskal Herrirako erronka bezala identifikatu dituzte, batetik herrietan errotze herrikoa sortzea, dantza taldeena bezalakoa, eta bestetik, aitortza profesionala eta dagozkion eginkizunak.

**Gaurko musiken** arloak erakunde/federazio batean musikariak bilduko lituzkeen ekosistema bat pentsatu eta sortu nahi luke. Lehen lana kontzertu lekuak identifikatzea eta sortzea litzateke.

Gero, Badok atariarekin lan egitea (euskal musikaren ataria), dagoen musika-ondare guztia eskuragarri izan dadin.

Ekosistema horretan, musika bidea egin nahi duten gazteei ekoizpenerako formakuntza eskaintzea aurreikusi dute. Ekintza guzti horiek EKErekin lankidetzan egin nahi lituzkete. Ikuspegi orokorrago batetik, lurraldeko gazte gehiago eraman nahi lituzkete musika praktikatzera.

**Zinemaren** kasuan berriz, formakuntza zentro bat eta artista egonaldiaren garapena beharrezkotzat eman dituzte. Zinemako eragileek ere ekosistema batean antolatzea eta epe luzeko estrategia dituzte gogoan. Ekosistemak ekoizpena, hedapena eta irudi heziketa bermatuko lituzke erreferentzia zinematografiko amankomunak partekatzeko.

#### 4. KULTUR PERSPEKTIBEN SINTESIA ZEHARKAKOA ETA ARDATZEZ ARDATZ

Apirilaren 23ko goizak beharren zeharkakotasuna du agerian ezarri. Arlo guztiek ondarearen biltzea eta memoriaren kontserbazioa izan dituzte hizpide, transmisioari begira. Arreta handia ezartzen dute transmisioan, eta denentzat erronka nagusienetakoa da.

**Transmisioan eta praktikan,** euskal kulturako arlo guztientzat euskara ebidentzia bat da.

**Hedapena** ere, nahiz eta arlo batetik bestera problematika eta behar desberdinak izan (publikoak, egituraketa, baliabideak...) eta horren inguruko gogoeta eta partekatze bat irudika liteke. Haatik, partehartzaile gehienentzat sorkuntza eta eraberritzeak ez du aparteko arazorik ematen, ezen bakoitzak dinamika propioa baitu alde horretatik.

- ***Elkartuz* urraspidearen balorazioa**

Goizaldi horretan informazioak partekaturik, denak jabetu dira elkarrekin badutela zer egiterik.

Talde proiektuak laguntzea, beharrak instituzioetara helaraztea eta euskal kulturarako sentsibilizazio estrategia garatzea helburu duen EKErentzat lehen gai baliosa izanen da, baiki.

Epe luzeagora, EKEk arlo bakoitzeko ordezkaritza baten inguruan egituratu nahi luke bere eskuhartzea, sare-buruak identifikatuz, euskal kulturaren etorkizuna denon artean eraikitzeko.

## 5. HURRENGO URRATSAK

Interesgarri zen ikustea nola Elkartuz diagnostiko partekatuak eragileen mobilizatzeko prestutasuna azaleratu duen, hurrengo urratsean elkarrekin aritzeko epe labur eta ertainera (4 urte).

Hemendik aitzina, Euskal Kultur Erakundeak fase berri bat proposatuko die, taldean adostu dituzten lehentasunezko proiektuen gauzatzeko. Horregatik, 2022ko irailetik goiti, ostegun arratsetan (edo asteazkenetan), EKEko ateak zabalik izanen dituzte berriz Lota jauregian.

Arloka berriz ere, bilkura batera gomiatuak izanen dira taldean zer proiektuekin segitu, nola eta bilkurak zer maiztasunekin egingen dituzten adosteko.

Hortik landa, egutegia eta funtzionamendu bat finkatuko dute.

EKE partehartzaileen bidelagun izanen da. Batzen laguntzeko, koordinazio lanak egiteko eta dinamika bakoitzaren egituratzea akuilatzeke eta proiektuen garapena defendatzeko.

Ekintza erregular amankomunak irauten badu, sare-buruak jalgiko dira, dinamika orokorraren zurkaitzak bailiran.

*Hélène Charriton-ek egin sintesia, Elkartuz tailerren animatzailea.*

# ERANSKINAK

- 1** TAILERREN EGUTEGIA
- 2** BILDUMAK  
#1 TAILERRAK
- 3** PROPOSAMENEN TAULAK  
#2 TAILERRAK
- 4** "EKINTZAK/UTOPIAK" FITXAK  
2022/04/23 - SINTESIA
- 5** TELEKARGATZEN AHAL DIREN  
GAINERAKO DOKUMENTUAK
- 6** PARTE-HARTZAILEEN  
ZERRENDA

**1**

# TAILERREN EGUTEGIA

# BILKUREN DATAK | DATES DES RÉUNIONS

🕒 18:00 > 20:30 | CHÂTEAU LOTA JAUREGIA, UZTARITZE

2021

## ANTZERKIA | Théâtre

📅 Urriaren 7a  
7 octobre

📅 Azaroaren 4a  
4 novembre

## DANTZA & DANTZATZEKO MUSIKA | Danse & musiques à danser

📅 Urriaren 14a  
14 octobre

📅 Azaroaren 9a  
9 novembre

## LITERATURA | Littérature

📅 Urriaren 21a  
21 octobre

📅 Azaroaren 18a  
18 novembre

## BERTSULARITZA | Bertsularisme

📅 Urriaren 28a  
28 octobre

📅 Azaroaren 25a  
25 novembre

2022

## GAURKO MUSIKAK | Musiques actuelles

📅 Otsailaren 10a  
10 février

📅 Martxoaren 10a  
10 mars

## KORU KANTUA | Chant choral

📅 Otsailaren 17a  
17 février

📅 Martxoaren 17a  
17 mars

## ARTE BISUALAK | Arts visuels

📅 Otsailaren 24a  
24 février

📅 Martxoaren 24a  
24 mars

## ZINEMA | Cinéma

📅 Martxoaren 3a  
3 mars

📅 Martxoaren 29a  
29 mars

# BILKUREN DATAK | DATES DES RÉUNIONS

# ELARTUZ



18:00 > 20:30

CHÂTEAU LOTA JAUREGIA, UZTARITZE

2022

PRESTAKETA BILKURA  
Préparation de la synthèse



Apirilaren 7a  
7 avril

SINTESIA EGUNA  
Matinée de synthèse



Apirilaren 23a  
23 avril



[elkartuz.eke.eus](http://elkartuz.eke.eus)





**2**

**BILDUMAK  
#1. TAILERRAK**

**EL**  **ARTUZ**

# ELOARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

## ANTZERKIA

### Lehen tailerra

2021eko urriaren 7an - 18:00 > 20:30

Parte hartzaileak : 9 eragile

Animatzailea : H el ene Xarriton (Gogaide)

### BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratzen diren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestetik, gerorako proiektzioak irudikatzea.

Euskal antzerkia izan zen lehen aztergaia. Euskal antzerkia aipatzen dugularik, errituetaz ari gara (pastoralak, kabalkadak, maskaradak, ihauteriak...), herriko antzerkietaz (herrietan muntatzen direnak, besta kari edo), antzerki herrikoietaz (talde amaturrek eskaintzen dituztenak) eta antzerki talde profesionaletaz (bakarkakoak izaten ahal direnak).

#### 1. ANTZERKIARI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, ondareaz ari gara, bilketaz, historiaz, ikerketaz... Nola antolatuak diren, transmizioa nola egiten den...

Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:

- **Baikorrak:**
  - Aberatsa da gure ondarea, bizirik dago eta eskuragarri.
  - Liburuak eta ikerketak izan dira eta badira.
- **Eskasak:**
  - Ezagutza eta formakuntza eskas dira, bai errituen zentzu eta sinboloen ezagutzan, antzerkiaren historian edo Euskal Herriaren historian.
  - Taldeentzat zaila da iturrien aurkitzea.
  - Memoriaren inguruko bitartekariak eskas dira.
  - Ahozko ipuinaren ondarea gutxi transmititua da.
  - Euskal mitologiak folklorizatua izateko arriskua badu
  - Orohar, gai honetan formakuntza eskas da.

**Ohar bat:** memoria izatea garrantzitsua da, aldiz hobe geroari begira egoten bagira.

**Eta geroari begira**, hainbat proposamen agertu dira, hala nola, bilketa lanaren segitzeko, tresna numerikoak baliatuz batez ere, zendako ez antzerkiari buruzko dokumentazio zentro bat sortu, euskal antzerkiaren historia zabaldu, liburuak/testuak berriz argitaratuz, klasikoak erakutsiz ikastetxeetan eta taldeak lagunduz klasikoak muntatzen (adib.: Larzabal = Molière).

Gazteei eta publiko zabalari oinarrizko kulturaren transmisioa segurtatu sinbolo eta mitoei begira.

Aipamen bat izan da ere, EKE-ren eginkizunari begira, memoriaren koordinaketa lana eramateko, bilketa + dibulgazioa beste egiturekin batean (Unibertsitatea, Artxiboak, taldeak, federazioak...), partaidetzak bultzatuz...

## 2. ANTZERKI ARTEAREN BERRITZEA

Antzerkiaren berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela, bai eta ere trukaketak, idazlanak edo formakuntza.

**Berritzearen egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Konpainia profesionalak badaude, euskaraz ari direnak.
  - Kale antzerkia goiti doa.
  - Profesional talde batek lan bat eramaten du antzekilariak biltzeko.
  - Sorkuntza bada.
  - Profesionalen eta amaturren artean trukaketak badira, amaturrek profesionalen laguntza eskatzen dutelarik.
  
- **Eskasak:**
  - Idazleak (!) (lau aldiz aipatua).
  - Formakuntza.
  - Forma berrien ikerketa.
  - Antzerki amatur taldeak gutiago dira.
  - Emazteak ez dira aski ordezkatuak.

**Eta geroari begira, hainbat proposamen, hala nola:**

- Iparraldeko ADEL bat biziartzea (Arte Drama Euskal Laborategia) formatzeko manera arraberritzeko.
- Ikastaldiak.
- Formakuntza sustatzea eta formakuntza politikoa eraikitzea.
- Programazio ausarta eta orotarikoa.
- Errituak eta kodeak ezagutarazi, galdezkatu, berritu, taulara eraman (?)
- Amaturren eta profesionalen arteko saretzea.
- Trukaketak taldeen artean.
- Idazketa sustengatu.
- Erakundeek zubiak eraikitzen lagundu behar dute

- Emazte gehiago antzerkian.
- Xiberoan den beharra (?)

### 3. ANTZERKIAREN HEDAPENA

Antzerkiaren hedapena aipatzen dugularik, publiko desberdinetaz ari gara (euskaldunak, erdaldunak, gazteak...), antzezlanak eskaintzeko herri eta hirietaz (Iparraldean, Hegoaldean, Euskal Herritik kanpo), bai eta antzerki horien emateko lekuetaz ere (antzokiak, gelak, plazak, festibalak...).

**Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Antzerkilari gazte gero eta gehiago badira talde herrikoietan ari direnak.
  - Bizirik dago antzerkia.
  - Gazteendako ekoizpenak sustengatuak dira.
  - Tokiak badira.
- **Eskasak:**
  - Orokorki hedapen guti, gutitan 7 probintziak konduetan hartuak.

Antzerki herrikoia guti balorizatua da, mugikortasunik gabeko publikoa da.

  - Euskal Herritik kanpo nekez entzunarazten.
  - Beste hizkuntzekin edo kulturekin harreman guti dira.
  - Sare eskasa da, azpiegiturak eskas dira.
  - Elkargoarekiko dependentzia arazo bat da.
  - IBILKI programa bakarrik Herriko Etxeendako izatea, arazo bat da.
  - Publiko gaztearentzat, eskaintza eskas.

**Eta geroari begira,** 7 probintzia mailako antzerki federazioa ongi ikusia litzateke, IBILKI bezalako programak antzerki elkarteei idekitzea komeni litzateke, sare profesionala muntatu, goitularitzan formakuntzak egin, ez ohiko lekuak lagundu gauzak programatzen, Euskal Herritik kanpo hedatzeko laguntzak eta tresnak, hedapen lekuen kartografia bat sortu – tresna berriak sortu...

Alor honek bestalde, galderak sortu ditu, non eta hedapenaren funtsa galdezkatzen den: Zer da helburua? Non hedatu? Zein antzerki mota hedatzekoak dira?

### 4. EUSKARAREN ERABILERA ANTZERKI MUNDUAN

Euskararen erabilera aipatzen dugularik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den...

**Euskararen praktikari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Euskaraz sortua dena baloratu eta indartu.
  - Itzulpenik egin gabe.

- Solaskide euskaldunak badira, baina gehiago balira hobe.
- Buraso erdaldunak badira publikoan.
- **Eskasak:**
  - Batzuetan praktikak frantsesez transmititzen dira.
  - Publikoak ez dira nahasten eta bakarrik euskaraz izanik batzuk beldurtzen dira.
  - Antzerki herrikoietan aktore erdaldunekin nola egin?

**Eta geroari begira,** euskara ahal guzien heinean atxiki eta eskuragarritasuna bermatu ere bai egokitzapenak eginez (bapateko itzulpenak, goitituluak...); euskara sexy bilakatu behar da – jatorrizko hizkuntza euskara izatea bermatzekoa eta baloratzekoa da (idekidura eta babestearen arteko oreka), euskara prozesu osoan izatea zaintzekoa da.

## 5. ANTZERKI ARTEAREN TRANSMISIOA

Antzerkiaren transmisioa aipatzen dugularik, publikoaren sentsibilizazioaz ari gara, transmisio herritarraz, baina ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

**Transmisioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Herri elkarteak badira antzerkien muntatzeko, gazteak hortarat heldu dira.
  - Pedagogiarako tresnak badira.
  - Sorkuntzak transmisio bat segurtatzen du.
  - Ikastetxeetan galdera anitz badira
  - Kostaldean profesionalak/barnekaldean herrikoiak.
- **Eskasak:**
  - Formakuntza eta sentsibilizaziorako bideak eta zubiak eskas dira.
  - Profesionalak formatzea transmisioa segurtatzeko, galderei erantzuteko.
  - ADEL moduko festibal bat Iparraldean.

**Eta geroari begira:**

- Egiatzko desafio bat da sentsibilizazioa, pedagogia eta formakuntza lantzea.
- Sarea sortu behar litzateke, profesionalen artean.
- Profesionalen eta amaturen artean, tailerrak eta ikastaroak prestatu.
- Tresna gehiago sortu.
- Bertso eskola moduko antzerki eskola.
- Animatzeko profesionalak eta irakasleak formatu.
- Esperimentazioa bultzatu.
- Alor hau erakunde publikoek sustatzekoa dute.
- Antzerkiaren bitartez anitz ideia eta mezu pasatzen ahal dira irri eginez (pedagogia mota bat da).

## SINTESIA

Zailtasun eta oztopo gehienak identifikatuak eta ezagutuak izan dira.

**Ondorioz, eztabaidan ezarriko genituzkeen galderak geroari begira itzuliak izanen dira:**

- Memoriaren zainketa eta banatze lana: nola pentsatu? Zein xedeekin? Norentzat? Noren gain utzi? Eredu klasikoak zein herrikoiak transmisiorako antzeztu?
- Berritzeak ekartzen du idatzien eskasa agerian, nola egin idazketa sustengatzeko, sorrarazteko?
- Berritzea hedapenaren arazoari lotua da: zer erran nahi du programazio ausart bat eta orotarikoa? Hor kokatzen ote da formakuntza edo transmisio politika, euskal kulturari begira? (arte orokorikoa, 7 probintzietakoa?)
- Berritzea eta transmisioa hainbatean juntatzen dira: gerorako desafioak dira. Zer egitura eta saretze mota behar lirateke geroaren segurtatzeko? Galderari erantzuteko + Sorkuntza bermatzeko + transmisioa bizitzeko?
- Euskara: antzerkia, kultura euskararen ekarle: aktoreak euskararen inguruan bildu, nola? Publikoa hezi? Zabaldu egokitzapenen bitartez? Euskal antzerkia, esportagarri?

# ELARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

DANTZA & DANTZATZEKO MUSIKAK  
DANSE BASQUE ET MUSIQUES À DANSER

## Lehen tailerra

2021eko urriaren 14an - 18:00 > 20:30

Parte hartzaileak : 20 eragile

Animatzailea : H el ene Xarriton (Gogaide)

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratzen diren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestalde gerorako proiektzioak irudikatzea.

“Dantza eta dantzatzeko musikak” izan zen bigarren aztergaia, **2021eko urriaren 14an**. Euskal dantza eta dantzatzeko musikak aipatzen ditugularik, euskal dantza herrikoiaz ari gara, Euskal musika herrikoiaz, dantza garaikideaz, dantza eta musikaz, dantza herrikoia eta garaikideaz, dantza taldeetat, konpainia profesionaletaz, dantza emateko praktika ezberdinetaz, dantza ikusgarrietaz, dantzari tokia egiten dioten beste ikusgarrietaz...

### 1. DANTZA ETA MUSIKEEI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, ondareaz ari gara, bilketaz, historiaz, ikerketaz, nola antolatuak diren, nola transmititzen diren.

**Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Erritoak eta sinboloak hor dira, azkartzen, berrasmatzen ari.
  - Behar kolektibo bat senditzen da, gizartea prest da erritualak berpizteko eta bereganatzeko, edozein tokitan baliagarri (pastoraletan, festibaletan...)
- **Eskasak:**
  - Bilketa anitz bada, aldiz eskugarritasuna zaila da.
  - Informazioak eta iturriak eskas dira.
  - Hedapena bestalde bereizita da, mugatua senditzen da.
  - Azkenik, zentzuaren galdera pausatzen da: zentzua galtzeko arriskua bada, zentzuaren azkartzeko beharra bada, zentzua falta da (*organikoki eta teorikoki*).

- Ohar batek dio, *desira* eskas dela ere bai.

**Eta geroari begira, hainbat proposamen agertu dira, hala nola, bilketa lanaren beharrak:**

- Musika, urratsak, tresnak, erritmoak (Xiberoan bereziki).
- Errituen begiratzea eta azkartzea, zendako ez ondoko kulturetan inspiratuz?
- Dantza eta musikaren bitartez, historia bizitzeko eta dantzatzeko asmoa garatu.
- Esperientzia ezberdinak biderkatu.
- Hots memoria martxan jarri.
- Bestalde hedapena bateratzeko ideia agertzen da, eta liburutegi, webgune edo hitzaldiak aipatzen dira sinboloen transmizioari begira.

## 2. DANTZA ETA DANTZATZEKO MUSIKEN BERRITZEA

Dantza eta dantzatzeko musiken berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela (amaturrena eta profesioanalena), herri ikusgarriak ere bai, errituak berak, formakuntza, trukaketak eta idazketa lanak...

**Berritzearen egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - lhauteriak garatzen dira.
  - Herri ikusgarriek dinamika kolektibo aberatsa sortzen dute.
  - Nortasuna azkartzen, baloreak partekarazten.
  - Dantza eta musika jendartearen berritzeko palankak dira.
  - Euskal dantzan amaturrak presente dira.
  - Kodigo tradizionalak kontutan hartuak dira eta garaiari egokituak.
  - Sorkuntza profesionala gero eta gehiago bada (kanpora begiratzen du eta indibiduala da).
  - Beste kulturekin zubiak egiten dira, errepikatsetik bariazioa sortzen da.
- **Eskasak:**
  - Erritu/besta egutegia berpiztekoa da.
  - Batzuetan zentzua ez da ageri, edo jakin gabe egiten da.
  - Herri ikusgarria egiten delarik, lan gehiegi bada, ziklikoak eta maiztasun ttiki batekin bizitzen direlarik.
  - Formakuntza eskasa da, dantzarien eta irakasleen arraberritzeko, moldaketak, partiturak sortzeko eta partekatzeko, tresna guzientzat.
  - Elkarleen funtzioa eta funtzionamendua berregituratzeko da.

**Eta geroari begira, hainbat proposamen dira, hala nola:**

- Besten egutegia berpizteko asmoa.
- Errituen zentzua lantzea.
- Herri ikusgarrietan produkzio lana antolatzea, sustatzea.
- Formakuntzarako materiala identifikatu eta bildu (musika, erritmoak, urratsak, kantua...).
- Trukaketa mementoak plantan ezarri: gorputzaren mugimendua eta solasaldiak nahasiko lituzketenak.
- Profesionalen arteko deialdia elkarlanean aritzeko.



- Sareen partekaketa berritzea bultzatzeko.
- Desafioak berriz sartzea dantzan...

### 3. DANTZA ETA DANTZATZEKO MUSIKEN HEDAPENA

Dantza eta dantzatzeko musikaren hedapena aipatzen dugularik, publiko desberdinetaz ari gara (euskaldunak, erdaldunak, gazteak...), hedapen eremuetaz (Iparraldea, Hegoaldea, beste lurraldeak), bai eta hedapen geletaz, plazetaz, festibaletaz, hedapen sareetaz...

**Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Hedapen toki anitz eta desberdinak badaude.
  - Herri Elkargoaren eragina baikorra da zabalkuntzari begira.
  - Publikoa anitza da (haur, gazte, heldu, xahar, euskalduna edo kanpotiarra).
- **Eskasak:**
  - Kultura eta euskal nortasuna ez dira aski presente eguneroko bizian.
  - Plazetan gutiago agertzen da (Barnekaldean eta Xiberoan bereziki).
  - Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak eskas da.
  - Proiektu anitz egoten dira hedapenik gabe; *“sedukzio egitera kondenatuak gira”*.
  - Euskal dantzaren irudia batzuentzat zaharkitua bezala agertzen da.
  - Elkarleen arteko sarea ahultzera doa.

**Eta geroari begira,** galderak heldu dira jakiteko publiko berria nola sentsibilizatu, jakinez dantzak jendea euskararat ekartzen ahal duela, Euskal Herrian garela erakusten ahal duela.

Baliabideak pentsatzekoak dira : pedagogia landu, garraioak ahalbidetu, prezioak egokitu, lurraldearen barnean eskaintza homogeneizatu, publikoari begira kanpainak sortu, hedapen tokien arteko sarea sortu eta dinamizatu.

Azkenean, tokiko instituzioek (EKE, EHHE) kultura hedatzen lagundu behar dutela (*zinez*), Euskal Herritik kanpo baina sustut Euskal Herrian. Iparraren eta Hegoaren, profesionalen eta amaturren arteko harremanak indartzekoak dira, topaketak asmatuz....

### 4. EUSKARAREN ERABILERA DANTZA ETA DANTZATZEKO MUSIKEN MUNDUAN

Euskararen erabilera aipatzen dugularik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den...

**Euskararen praktikari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Aldatu da egoera dantza taldeetan, euskara presenteagoa da, ohiturak hartzen dira.

- Lurraldeen arabera gero eta solaskide gehiago aurkitzen dira.
  - Euskara anitz ikasten da.
  - Posible da euskaraz lanean aritzea.
  - Euskarak die zentzua ematen dantza eta musikari.
- **Eskasak:**
    - Lurraldeen arteko ezberdintasuna bada (kostalde/barnekalde).
    - Plazetan euskara guti entzuten da.
    - Euskara gabe folklorizatze arriskua handiagoa da.
    - Talde batzuk arrunt erdaldunak dira eta euskaldunak oraindik “Enbatakoak” bezala irudikatzen dituzte soilik, estigmatizazio gehiegi bada, ofizialtasuna eskas delarik.

**Geroari begira**, Iparraren eta Hegoaren arteko trukaketek euskarari bizia ematen ahalko liokete. Erabilera, sentsibilizazioa eta komunikazioa lantzekoak dira. Ausartu behar da. Folklorizazioaren eta kontsumerismoaren aurka jarri behar da.

## 5. DANTZA ETA DANTZATZEKO MUSIKEN TRANSMIZIOA

Dantzaren eta musikaren transmizioa aipatzen dugularik, alde batetik publikoen sentsibilizazioaz ari gara, transmizio herritarraz, bai eta ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

**Transmizioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Praktika herrikoietan sare aberatsa eta dinamikoa da.
  - Senditzen da transmizio exekutiboaren beharra, galtzeko arriskuaren beldurraren kontra.
  - Eskoletan sentsibilizazioa bada.
  - Baliabide pedagogiko berriak daude.
  - Kalitatezko erreferenteak dira, gogoia pizten dutena.
  - Talde gehienetan herrikoia transmititzen da.
- **Eskasak:**
  - Ez da egituratua (lehenago “Banako”, orain “Abereen dantza”).
  - Formakuntza eta inplikazio eskasa (musikak eskatzen duen zorroztasuna).
  - Batzuetan gaizki egin (tarrapatan, azalekoa, katastrofikoa, norabide txarrak...).
  - Dispositiboek itotzen ahal dute.
  - Dantza eta musika bereziak dira.
  - Lurraldearekin lotura eskasa da. Ametsa sortu behar da...

**Eta geroari begira:**

- Sentsibilizazioa egituratu behar litzateke, jakinez plazakoa onena dela.
- Dantzaren oinarriak ezagutu eta bizi behar dira.
- Irakasle berriak formatu, transmititzeko lillura piztu.
- Irakasle/artistaren estatutua gogoetatu behar da.

- Irakasle/transmititzaile sare bat azkartu: ordezkatzeko, musikaren eta dantzaren arteko loturak indartu...
- Mugak hautsi behar dira.
- Herriko elkarte/artisten arteko sareak; dantzaren topikoak landu (sexu, gorputz, teknika, kultura...).
- Epe luzeko garapen ikuspegi batean, segipena eta laguntzak ikustekoak dira...

## SINTESIA GISA

Zailtasun eta oztopo gehienak identifikatuak eta ezagutuak izan dira: bizipenak, egituratzea, arraberritzea eta transmizioaren kondukoak.

**Ondorioz, eztabaidan ezarriko genituzkeen galderak geroari begira itzuliak izanen dira:**

- **Memoriaren zainketa** : Nola pentsatu? Zein xedeekin? Norentzat? Noren gain utzi?
- **Memoria/historia bizitzeko esperientziak sortu**: Memoriaren eta sorkuntzaren gaia nola landu?
- **Berritzeak** ere bere galderak ekartzen ditu: errituen zentzua, besten egutegien lanketa, nola eraman? Ikusgarrien produkzioa eta logistika modelizatzeko eta antolatzeko asmoa landu? Trukaketaldiak plantan ezarri? Sareen dinamika berriz landu? Mutualizazioa? Sorkuntza eta sortzeko formakuntza gogoetatu?
- **Hedapenaren problematikan**, lehenik publiko berrien sentsibilizazioa aurkituko da: Dantzari eta musikariak sentsibilizatu eta dantza/musikaren bitartez nola euskararat eta euskal kulturarat ekarri? Baliabideak/ahalak aipagai? Hedapenerako ere topaketak antolatu (Ipar/Hego – amatur/profesional – taldeak/herriak...)?
- **Dantza munduan, euskara baliabide gisa ikusten da**, folklorizazioa hainbatean saihestuko lukeena. Euskararen praktika bultzatzeko, zein dira baliabideak? Nondik abiatu, jakinez dantza talde batzuetan ez dutela loturarik egiten oraindik?
- **Ongi transmititzeko giltzak**: desioa eta gaitasuna: irakasleak formatu, sentsibilizazioa egituratu, mugak hautsi... eta hori dena perspektiba luze batetan jarri, nola?

# ELARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

LITERATURA  
LITTÉRATURE BASQUE

## Lehen tailerra

2021eko urriaren 21a - 18:00 > 20:30

Parte hartzaileak : 12 eragile

Animatzailea : H el ene Xarriton (Gogaide)

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratzen diren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestalde gerorako proiektzioak irudikatzea.

Literatura izan zen hirugarren aztergaia, **2021eko urriaren 21ean**. Literatura aipatzen dugularik, liburuaz eta liburuaren inguruko lanbideetaz ari gara, baina ere sortzaile/idazleetaz, irakurle eta entzuleetaz, interpretatzaile eta kondalarietaz, argitaletxeetaz, banatzaileetaz, liburutegia eta mediateketaz, irakasleetaz, itzultzaileetaz eta Literatura kritikarietaz, besteak beste...

### 1. LITERATURARI BURUZKO MEMORIA

Memoriaz ari garelarik, ondareaz, bilketaz, historiaz eta ikerketaz ari gara, nola antolatuak diren, nola transmititzen diren...

**Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Euskal Herriko historia aski ezaguna da.
  - Ahozko bilketa egiten da eta baitezpadakoa da: bizimoduak, ohidurak, mitoak, memoria herrikoia.
  - Bilketa beharrezkoa da eskuragarri izatekotan.
- **Eskasak:**
  - Literatura ondarea, literaturaren historia ez dira batere edo ez aski ezagutuak.
  - *Guk* ere ez dugu memoria/ezagutza hori.
  - Gure memoria historikoa osatu behar da.
  - Transmisioa gaizki dabil etxean eta familian.

- Bilketa nork egin eta ipuina ezberdinki kontatua izan daiteke...

**Eta geroari begira, galderak eta proposamenak agertu dira, hala nola:** bilketa lana segitzekoa dela, egituratzekoa (lan handia); bilketa lanaren beharrari begira, lehenik konzientzia hartu behar dela lan honek zenbat denbora hartzen duen.

Hedapena eta informazioa gogoetatzekoak dira; Idazle edo obra nagusi enblematiko batzuen inguruko gertakariak (Axular, Xaho, LL Bonaparte, Artze, Iparragirre...) pentsatu behar dira publiko zabalarentzat; bizipenak eta lekukotasunak arrakastatsuak dira (historiari konparatuz); Euskal kontagintzako bilketa erabiltzekoa da; Herritarrei mintzatzeko, aipatzeko lekua uzten badiegu beren gogoia harrotu eta errexki mintzatzen dira; Euskal kontalaritza, mugarik gabeko/unibertso mailan hartu, eta egokitu, guretu; Itzulpenak: beste ipuin, munduko testu, ikerketa lanak irakurri eta landu behar ditugularik. Ikerketak, beharren arabera egin Euskal Herrian eta kanpoan ere. Guretu behar ditugu; Euskal liburutegi nazionala izan/egin behar genuke.

**Ohar bat eta galdera bat: “Memoriak ere literatura baldintzatzen du”.**  
**“Nola erakargarri izan ?”**

## 2. LITERATURAREN BERRITZEA

Literaturaren berritzea aipatzen delarik, genero aniztasunari dei egiten zaio, idazketa lanari, trukaketei, beka-egonaldiei, formakuntza eta teknika berriei (e-liburuak, audioliburuak...).

**Berritzearen egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Gero eta ekoizpen gehiago daude euskaraz ipar Euskal Herrian, eleberrri generoa berritzen da.
  - Aniztasuna indartzen ari da.
  - Haur literaturan gehiago saltzen da.
  - Laguntzak emendatu dira.
- **Eskasak:**
  - *Liburuek ez dute jatekorik ematen.*
  - Haur literaturan, ez da aski sorkuntzarik ipar Euskal Herriko euskarari egokitua.
  - Gazteendako literatura falta da (maizegi itzulpenak dira).
  - Idazle gazteen eskasa bada.
  - Eleberrietan genero aniztasuna eskas da.
  - Sortzaileen laguntzeko eskasian gara, ekonomiak agintzen du (eskaera eta eskaintzaren araua).
  - Bide gogorra da laguntzarik gabe, editatzeko.
  - *Euskal gizarteak estimu eskasa du idazleentzat.*

**Eta geroari begira, ainitz ideia agertu dira, hala nola:**

- **Idazlea eta idazlana bultzatu:**
  - Formakuntzak eginez.
  - Euskaraz idazten laguntzeko bekak eta sorkuntza egonaldiak eginez.
  - Heldu eta gazteentzako, idazteko leku partekatuak sortuz.
  - Idazle tailerrak gehitu, sorkuntzako baldintzak segurtatuz.
  - Lanaren ezagutza agerian emanez, ilustratzaileak lagunduz.
  - “Kantu Txapelketa” antzeko zerbait sortuz.
  - Sortzaileen arteko topaketak/trukaketak eta sortzaile/argitaratzaileen artekoak bultzatuz.
  
- **Idazle/sortzailea eta irakurleak harremanetan jarri:**
  - Liburua objektu gisa landuz eta bultzatuz, ipuin grabaketak eginez (kondalari bakoitzak moldatzeko eta kondatzeko).
  - Irakurle klubak hedatuz.
  - Gune berri batzu sortuz (*hari gorri* bezalakoa).
  - Ipuin berriak idatziz emanez, gureganatuz publikoari ipuin zaharrekin nahas-mahas emateko, lekukotasunak egin.
  
- **Testuaren eta kondaketaren arteko lotura egin:**
  - Ipuina idaztea ez da aski/kondalariak beretu, eta bere irudimenarekin eman behar du, bere hitzekin bere baitako irudietan, beste irudi batzuk sartzeko entzulearen baitan.
  
- **Hezkuntza arloarekin zubia egin:**
  - Unibertsitatean haur literatura, ipuingintza bultzatuz.
  - Irakasleak/irakaskuntza hunkituz.
  
- **Elkarlanean aritu beste artelariekin:**
  - (Musikari, marrazkilari, dantzari, margolari... ilustratzaile...)

### 3. LITERATURAREN HEDAPENA

Literaturaren hedapena aipatzen delarik, erran nahi da: publiko motak identifikatzen direla (euskaradunak, euskara ikasten dutenak, erdaldunak, haurrak, gazteak, helduak...), banatzeko lekuak eta moduak (lurrealdeak: ipar Euskal Herria, hego Euskal Herria, besteak...), ekimenak, liburudendak, liburutegiak, hedabideak...).

**Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Publikoak eta eskaerak ezberdinak dira.
  - Haurrena.
  - Familiarra (ibilaldi kontatuak)
  - Helduak (*Iparraldean anekdotikoa*)
  - Leku bereziak (zahar etxeak, presondegiak, liburutegiko irakurleak...)
  - Frantsesezkoa (mitologiari buruzko eskaera handia)

Frantsesez kondatzeko eskaera bada, denbora berean kondalariak elebidunak izaten ahal dira (bizitzeko?). Onartzen da lan bat dela promozioa egitea – kalitatea bada euskal literaturan.

- **Eskasak:**
  - *Desmobilizatzeko mila aukera badira:* irakurlegoa ttipia da (ikasten dutenak hizkuntzaz ez jabetzen).
  - Dakitenek ez alfabetizatuak, euskalkiekin nahasiak, hego aldeko batua ez ulertua...)
  - Gazteek orohar edo zailtasunetan diren batzuk audioak nahiago edo behar lituzkete. Aldiz horiek eskas ditugu.
  - Iparraldea eta Hegoaldea bi merkatu ezberdin dira (Hegoaldean hedatzeko zaila da, banaketa sistemak ez du hemengo ekoizpena laguntzen).
  - Euskal Herritik kanpo garatzeko aukerarik ba ote da?
  - Euskaratik frantsesera pasatzea zaila da.
  - Liburudendak desagertzen ari dira, liburutegietan euskal ekoizpena itoa da.
  - Euskal mitologian dena nahasten da, poesia ez da batere agerian emana eta baloratua, hots literatura arloan ari diren kritikari/kazetaririk ez da.

“**Eta geroari begira?**” galdera egin ondoren (*Motibazioa nola atxiki egoera honen aitzinean?*) berriz ere ideiak agertu dira.

Ekoizpenen inguruko planifikazio bat behar da, lurraldean aurkeztuz eta ezagutaraziz, herrietan eta mediateketan hedatuz ; sortzaileentzat informatzeko ibilbideak identifikatu eta argitu, hedapena lagundu, mediateken lana eta azokak indartu, irakurketa klubak eskolatik bideratu, idazleak eskoletan etorrazazi, eskaintza zabaldu ; edukinetan Euskal mitologia orokorki landu, zentzua emateko (eta ez zatika).

#### 4. EUSKARAREN ERABILERA LITERATURAREN ALORREAN

Euskararen erabilera aipatzen dugularik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den, dakiten, ikasten eta ez dakitenekin.

**Euskararen praktikari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Azokak badira (*Ziburu, Ikusi-Mikusi, Biltzar, Maiatz : 2 berri!*).
  - Mediateka batzuek euskara biziarazten dute.
  - Publiko ezberdinei egokitzen da.
  - *Irakaskuntza euskara ikasteko da, kondalaria, euskara gozatzeko eta jostatzeko.*
  - Haurrek euskararen erabilerako ahal gehiago dituzte (ad. surf klaseak euskaraz Angelun).
  - Barnekaldean hobeki ulertzen da.
- **Eskasak:**
  - Hitzun kopurua beheiti doa, ondorioz irakurle gutxiago dira.
  - Entzuten den euskararen maila ahula da.

- Zaila da elkar topatzea.
- Irakurle talde gutxi dira.
- Irakurketa bultzatzeko dinamika ez da bateratua.
- Bestalde eskaintza falta da (liburuen aniztasuna).
- Hirietan ez da ulertzen orohar, ondorioz errekurtsioak asmatu behar dira.

**Geroari begira**, euskarari pentsatuz, irakurle taldearen proposamena heldu da, mediatekak lagunduz dinamika honen bultzatzen, euskara praktikatzen duten guneak indartu.

Eskolaren, ikastegiaren, irakasleen eta idazleen/kondalarien arteko harremanak azkartzekoak dira. Euskara erabiltzeko ikusi behar da Hegoaldean egiten dena. Komikiak (eta mangak) gazteentzat sortu. "Haria" bezalako webgunea eta plataformak biziarazi, hedabideak hunkitu...

Literatura sarrarazi euskal talde eta momentuen artean: eskoletan, besta/festibaletan, kultura elkarteetan autoreak mintzarazi...

## 5. LITERATURAREN TRANSMISIOA

Literaturaren transmisioa aipatzen dugularik, alde batetik publikoen sentsibilizazioaz ari gara, etxeko transmisioaz, baina ere pedagogiaz, formakuntzaz, hezkuntza artistikoaz, unibertsitate formakuntzaz...

**Transmisioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Haurrentzat gauzak badira, haur literaturan egoera ez da hain txarra.
  - Espazio bereziak agertzen hasten dira.
  - *Kondalaritzan publikoaren arabera egiten da. Kondatzen eta pasarazten da euskaldun berri, haur edo euskaldun zaharrentzat. Irakurketa taldeak eraginkorrak dira.*
- **Eskasak:**
  - Transmisioa arriskuan da: euskararena eta literaturaren gustuarena.
  - Irakasleek (lehen mailan?) interesa guti izaten ahal dute ere bai.
  - Eskolan ez da landua.
  - Hedabideetan toki guti du literaturak.
  - Idazleak zein irakasleak ez dira formatuak.
  - Idazleen arteko topaketarik ez da.
  - Gazteek irakurtzeari utzia diote.
  - Helduetan irakurlegoa ttipi ttipia da.
  - Bitartekaritzak eskas dira, ikusgarritasuna eskas da ere.

**Eta geroari begira**, egin den trukaketaren ondotik, adostasuna lortu da errateko *plazera* eta *plazeraren transmisioa* segurtatu beharko direla, ahozkotatasuna lehenetsiz (ahozkotatasunaren dinamika lagundu: pastoralak, bertsoak, kantua, antzerkia, libretimendua...).



Familiatik hasi: kontaketa familia giroan muntatu, ipuinak familietan kontatzeko izan daitezten, burasoak lagundu kondalari izaten.

Irakaskuntza eta formakuntza aipagai: kolegioetan integratu literaturaren lanketa, irakasleak formatu eta informatu literaturari buruz, kontalariekin formatu kontatzen, frantsesez egin formakuntza euskaraz ikasteko, kanpora joan eta ikasi, egokitu guretako, idazle gaitasunaren transmisioa egin....

Beste ideia multzo bat plazaratzearen inguruan kokatzen da: "txoko bat", "oasis" bat sortu ipuingintzarako, toki bati kondalari bat lotu jendea hurbil dadin eta treba dadin. Herriko etxe bakoitzean transmisioa segurtatuko duen pertsona bat (= langile bat) izan dadin, ipuinak helduentzat direla ere adierazi, irakurketaren inguruan trukaketa momentuak sortu, gazteentzat egokitu (liburu elektronikoak, sare sozialak, irratia emankizunak, audio liburuak, hots bitartekaritza bultzatu...).

Azkenik zentzu berera heldu dira hainbat proposamen erran nahi baita, euskara hutsezko ekoizpenak eta azokak laguntzekoak direla edo interesa pizteko sari bat sor daitekeela (publikoaren saria).

## SINTESIA GISA

Zailtasun eta oztopo gehienak identifikatuak eta ezagutuak izan dira: bizipenen, egituratzearen, arraberritzearen eta transmisioaren ingurukoak.

**Ondorioz, eztabaidan ezarriko genituzkeen galderak geroari begira itzuliak izanen dira:**

- **Memoriaren zainketa:** Nola pentsatu? Zein xedeekin? Norentzat? Noren gain utzi? Unibertsitatean egiten den lana nola balorizatu eta ezagutarazi?
- **Berritzeak ere bere galderak ekartzen ditu:** idazlanak, idazlearen figura nola balorizatu? Irakurketaren gustua nola bultzatu? Irakurle taldeak egituratzeko eta bermatzeko nola egin?
- **Hedapenaren problematikan,** edizioaren gaia erdian dago. Hortan, hainbat azalpen kondukan hartzekoak dira, sakonduz: irakurle goaren kopurua, irakurleen arteko ezberdintasunak, urteko eskaintzak, irakurleen gustuak eta eskaerak, modelo ekonomikoa...
- **Euskara,** irakurle goa ttipia izanik ere, ageri da ipuin kontaketa euskararen gustua hartzeko medio bat dela eta euskara hutsezko ekoizpenak sustengoa merezi duela. Horrek ez du kentzen kanpoan inspirazioa eta irakaspenak hartzen ahal direla. Ondorioz ekoizpen eta ipuin kontaketa elebidunak nola kokatu?
- **Transmisioa:** plazeretik abiatuz, deklinazioak badira, familiarrak, herrikoiak eta eskolarenak, lekuak eta mementuak dedikatuz, transmisioa egituratu eta segurtatu (denek ukan dezatela eskuratzeko para...).

\* Oharra: antzerkia eta bertsolaritza, literaturako generoak izanik ere, beste bilkuretan aipatuak izan dira diagnostikorako. Hemen aipatua den literatura ondorioz nagusiki narrazioa eta olerkia izan da, liburuaren eta ipuin kondalariaren bozaren bitartez.

# ELOARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

BERTSOLARITZA

IMPROVISATION VERSIFIÉE ET CHANTÉE

## Lehen tailerra

2021eko irailaren 28a - 19:00 > 20:30

Parte hartzaileak: 8

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratzen diren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta gerorako proiektzioak irudikatzea.

**Bertsolaritza izan zen laugarren aztergaia. Bertsolaritza aipatzen delarik, ardatz ezberdinak identifikatzen dira:**

- Lagunarteko bertsolaritza herrikoia (afariak, herriko bestak, libertimenduak, kabalkadak...)
- Antolatzen diren bertso saioak (txapelketakoa ala ez, *Haizea dator*).
- Sustapena (jendea kantarazteko, zaletzeko bideak...).
- Hezkuntza transmisioa segurtatzeko (bai bertsolari gisa eta bai publiko gisa): bertso eskola: gai emaile, epaile, teknikalari, bertsoaren maitasuna transmititzeko.

Iparraldean, Bertsularien Lagunak elkarteak du dinamizazio orokorra bere gain hartzen 1980tik goiti :

<https://www.bertsozale.eus/eu/xiberoa-lapurdi-baxenabarre/bertsularien-lagunak-elkartea>

**Gaurko egoerari begira**, neurtzen da urtean 100 bat saio antolatzen direla, bertso eskoletan 300 ikaslek parte hartzen dutela, 3000 ikusle hunkitzen direlarik (ikus Sud Ouest egunkariak Xilabari buruz argitaratu artikulua)– profesionaltasuna.

Euskal Herri mailan, Bertsularien Lagunak elkarteak EKKI proiektuan parte hartzen du: Euskal artistak biltzen duen sarea (Sacem), bertsolaritzak bizi duen eskasa baita profesional izateko egituraketa, misioak eta aukerak.

Joan den udaberrian, elkarteak bildu zen bere 5 urteko plangintza lantzeko eta ardatzak definitzeko.

**Barne antolaketa definitu zen eta sail bakoitzarentzat lehentasunak definitu, hala nola:**

- Sustapen sailarendako: udako saioak antolatu, helduen bertso eskolak sortu, elkartearen sustapen taldeak egonkortu.
- Hezkuntza sailarendako: herri eskolak sortu, barnekaldean bertso eskola berri eta egonkorak segurtatu, barnekaldean dinamika pobreagoa baita.
- Barne kudeaketarako: zuzendaritza (ber)egituratu.
- Profesionaltasuna.
- Orotara urtean 100 bat saio

EKKI proiektua Euskal Herri mailan: Euskal artistak biltzen duen sarea (Sacem)

## 1. BERTSOLARITZARI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, ondareaz ari gara, bilketaz, historiaz, ikerketaz, nola antolatuak diren, transmizioa nola egiten den.

**Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Lanketa Beñat Iturralderekin, bertsolaritza UNESCOn onartua izan dadin, ondare immaterialean identifikatua izateko (Inbentario Fitxendako diru laguntza).
  - Ikerketa lagundua Euskal Herri mailan
  - Xenpelar dokumentazio zentroko grabaketak
- **Eskasak:**
  - Ikerketa bazter utzia momentuan (Beñat Soule)
  - Bilketarako eskasia.
  - Kantutegiarekin lotura, lekukotasuna (joketa moduan zen bertsolaritza).
  - Hizkuntzaren azterketa: aberastasun bat bezala, soka bat osoki dinamizatzen dena

**Eta geroari begira, hainbat proposamen agertu dira, hala nola:**

Aipamen bat izan da ere EKEn eginkizunari begira, memoriaren koordinaketa lana eramateko, bilketa + dibulgazioa beste egiturekin batean (Unibertsitatea, artxiboak, taldeak, federazioak...) partaidetzak bultzatuz...

## 2. BERTSOLARITZA BERRITZEA

Bertsolaritzaren berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela, bai eta trukaketak, idazlanak edo formakuntza ere..

**Berritzearen egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Pedagogia gogoetatua eta transmititua.
  - 5 karta joko materiala, ahozotasuna landuz.

- **Eskasak:**
  - Praktikan jarri.
  - Sentsibilizazioa bertso elkartearengan utzia.
  - Ikus AOen adibidea

**Eta geroari begira, hainbat proposamen, hala nola:**

- Irakasleak formatu, gure interbentzioak kendu gabe.
- Bertso eskolatik ateratzen diren gazteak lehentasunez, irakasleak ongi formatuz.
- Helduen bertso eskola

### 3. BERTSOLARITZAREN HEDAPENA

**Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Hegoaldeko Bertsozale elkartearekin batera, Iparraldeko Bertsularien Lagunak elkarteak, orain bizitzen den transmisioa eta sustapena (bertso eskolak, Xilaba...) segurtatzen ditu.
- **Eskasak:**
  - Formatuak diren bertsolariak berez ibil daitezten herrietan transmisioa segurtatuz (dantzan egiten den moduan).
  - Estatu profesionala bizigarri izatea.
  - Helduen bertso eskolak muntatzea.
  - Aek-n eta eskatuak diren beste lekuetan ibiltzea.

**Eta geroari begira, XXI. mendeko bertsolariaren figurari buruz gogoetatzea, beste kultur alorrekilako eskaintza bati buruz ere...**

### 4. BERTSOLARITZAREN TRANSMIZIOA

Bertsolaritzaren transmisioa aipatzen dugularik, alde batetik publikoaren sentsibilizazioaz ari gara, transmisio herritarraz, baina ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

**Transmisioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Sustapenak anitz lana du, *Xilaba, Haizea dator...* antolatzen.
  - Bertso eskolak ongi ibili dira (300 bat ikasle).
  - Ikusgarri kulturaletan bertsolaritzaren parte hartzea.
- **Eskasak:**
  - Bertsularien Lagunen elkartearen finkatzea eta egonkortzea, modelo ekonomikoan.

- Bertsolari herrikoa eta gizarte behatzaile bezala oinarritu, hizkuntzaren lanketari begira proposamenak zabaldu...

## **ETA GEROARI BEGIRA**

- **Bertsolariaren figura paisaian balorizatu**, Bertsolarien Lagunak elkartearen beharra ez izatea, **publikoaren komunikatu eta gozatu...???**
- **Elkarteak aurrekontua egonkortu behar du** bere misioak eta garapena segurtatzeko. Iparraldeko Instituzioekin duen lotura hortan jokatzen da.

Bestalde, egiten den diagnostikoan, EKE-ren partetik galdera egiten da gogoetatzeko beste kultur alorrekin zein lotura eta zein zubi asma daitezkeen.

Laguntza mailan, aipatzekoa da, desmartxen alde teknikoak.

Eta Euskaltzale, bertsozale beotiar gisa, galdera bat: nola egin publikoa anitza izan dadin?

# EL<sup>o</sup>ARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

GAURKO EUSKAL MUSIKAK  
MUSIQUES ACTUELLES BASQUES

## Lehen tailerra

2022ko otsailaren 10ean - 18:00 > 20:30

Parte hartzaileak : 14 eragile

Animatzailea : H el ene Xarriton (Gogaide)

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratu diren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestalde gerorako proiektzioak irudikatzea.

“Gaurko musikak” izan zen bosgarren aztergaia, **2022ko otsailaren 10ean**. Gaurko musikak aipatzen ditugularik, honetaz ari gara: musikari taldeetaz, bakarlarietaz, profesional eta amaturretaz, musika kantuari josia izan ala ez, sorkuntzetaz edo egokipenetaz, ekoizpenaz eta hedapen sareetaz...

### 1. GAURKO MUSIKEI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, honetaz ari gara: ondareaz, bilketaz, historiaz, ikerketaz; nola antolatuak diren, nola transmititzen diren...

**Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Ondare aberatsa bada.
  - Bilketa ongi antolatua da, beti eta hobeki egina.
  - Interneten webgune ugari daude euskal musikaren ondarea agertarazteko,
  - Kantuen hitzak eskuragarriak dira? Badok-en lana azpimarratzen da, Baskpoetry.eus, Eresbil, DiscoG5, liburuak badira (“Euskal Rock”).
- **Eskasak:**
  - Etxeko transmisioa galdua da
  - Euskal musikaren historia ez da aski transmititua.
  - Mamia, zentzua eskas da.
  - Argitalpenak zeinek biltzen ditu? Non gordetuak dira?

**Eta geroari begira, hainbat proposamen agertu ziren, hala nola:** Koordinaketa lanaren beharra: zentzua eta mamia landuz, transmisioa segurtatzeko ekosistema baten sortzeko beharra/idea, hein batean mediatekek eta irratiek gordetze errola eginez.

## **2. GAURKO MUSIKEN BERRITZEA**

Gaurko musiken berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela (amaturrena eta profesionalena), baina ez bakarrik.

**Berritzearen egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan ziren:**

- **Baikorrak:**
  - Sorkuntza bizigarria eta ausarta bada, anitz bada eta kalitatezkoa.
  - Atabalen programazio anitza eta aberasgarria.
  - Autoekoizpenaren gaitasuna bada.
  - Gainproduktzio emankor bat badugu.
  - Herrialde osoan, errepikatzeko eta egonaldien egiteko lekuak badira.
  - Profesionalizazioak amaturren arrakala handitzen du.
  
- **Eskasak:**
  - Trukaketa eskas da proiektu edo artisten artean.
  - Ekoizpen aurreratua egiteko jakintza eskasa (musika herrikoiak produkzioan sartzeko).
  - Leku ertainak eskas, egonaldien egiteko.
  - Praktika herrikoia beiti doa.
  - Kanpoko taldeak zuzenean ikusteko parada gero eta gutiago bada.

**Eta geroari begira, hainbat proposamen badira, hala nola:**

Taldeen arteko loturak josi; ekoizpenerako laguntza, formakuntza; lekuak iraunkortu, garatu.

## **3. GAURKO MUSIKEN HEDAPENA**

Gaurko musiken hedapena aipatzen dugularik, honetaz ari gara: publiko desberdinetaz (euskaldunak, erdaldunak, gazteak...), kontzertuak eskaintzeko tokietaz (ipar Euskal Herrian, hego Euskal Herrian edo Euskal Herritik kanpo): gelak, plazak, festibalak, hedapen sareak...

**Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan ziren:**

- **Baikorrak:**
  - Herrialde aberatsa dinamika mailan (festibalak, gaztetxeak, herriko bestak...)
  
- **Eskasak:**
  - Euskal Herritik kanpo biziki gaitz da hedatzea (espazio murriztua).



- Azken garaietan, bestak, festibalak eskas, kantaldi gutiegi (ganer huste gehiegi?)
- Publikoaren adina: 50 urte gorakoak.
- Gaztetxeen dinamika beheiti doa.
- Hegoaldekoekin lotura zailak ez baita sistema bera (+ buruetan dagoen muga).
- Hedapen lekuak eskas.
- EKE-ren ardura laguntza mailan.
- Sortzeko espazio gutiago (antolatzaileei ainitz kostatzen zaie gualdiak antolatzea, antolatzaile guti, saltzaileak eskas).
- Ez da pariorik egiten talde gazte bat laguntzeko.
- Euskal kultura ez da aski ikusten.
- Euskal Herritik ateratzea zaila (programatzaileen ezagupen guti).
- Hedapen tokiak gaindituak.
- Hedapen eta komunikazio ahalmen guti.

**Eta geroari begira**, galderak heldu dira jakiteko publiko berria nola sentibilizatu, publiko kontzeptua gogozkatzekoa da eta formakuntza denentzat pentsatu behar da.

#### **4. EUSKARAREN ERABILERA GAURKO MUSIKEN ALORREAN**

Euskararen erabilera aipatzen dugularik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den...

**Euskararen praktikari begira hara oharrak zeintzuk izan ziren:**

- **Baikorrak:**
  - Euskal kantuaren arrakasta.
  - Erdaldunen integratzeko bide bat da.
  - Musika euskalduntzearen bide bezala.
  - Euskara modu formalean eta informalean praktikatzen ahal da.
  - Praktika leku gehiago, aukera gehiago.
  - Euskara kantatzeko usaia bada.
- **Eskasak:**
  - Entzulegoa tipitu da.
  - Kondatzen denari kasu gutiago egiten zaio.
  - Euskara funtsezkoa da, baina ez da berme bakarra.

**Geroari begira**, euskaraz diren proiektuen hedapenarentzat gogoeta bat eramateko beharra (itzulpen moduak, etab...)

#### **5. GAURKO MUSIKEN TRANSMISIOA**

Musikaren transmisioa aipatzen dugularik, alde batetik publikoen sentibilizazioaz ari gara, transmisio herritarraz, baina ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

**Transmisioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren :**

- **Baikorrak:**
  - Musika berak aski transmititzen du batzuetan.
  - Ez da lekurik eskas (gaztetxeak, besta komiteak...).
  - Talde batzuk oraino ateratzen dira euskaraz.
  - Formakuntzak, baliabideak eta produkzioak badira.
  
- **Eskasak:**
  - Transmisioa behera doa.
  - Jotzeko lekuak eskas.
  - Errepertorioa mugatzen da.
  - Euskarazko musika gutiago entzuten da.
  - Ultrakomunikazioan galtzen da.

**Eta geroari begira,** transmisio instituzionalak baliatzekoak dira (eskolak...); transmisio naturala berbultzatzekoa (bestak, familia, abusagailuak) delarik; Departamenduko Irakaskuntza eredu berrantolatzekoa litzateke; ahalen eta emaitzen arteko adekuazioa bilatu behar da; transmisioa ere antolatu.

## **SINTESIA GISA**

Zailtasun eta oztopo gehienak identifikatuak eta ezagunak dira: bizipen, egituratze, arraberritze eta transmisioa kondukoak.

**Ondorioz, eztabaidan ezarriko genituzkeen galderak geroari itzuliak izanen dira :**

- **Memoriaren zainketa:**
  - Nola pentsatu? Zein xedeekin? Norentzat? Noren gain utzi?
  - Memoria/Historia bizitzeko esperientziak sortu: memoriaren eta sorkuntzaren gaia nola landu?
  - Koordinaketa, eduki eta zentzu emate lanari buruz gogoetatu
  - Transmisioa segurtatzeko ekosistema baten sortzeko beharra/idea, nola?
  
- **Berritzeak ere bere galderak ekartzen ditu:**
  - Ikusgarrien produkzioa eta logistika modelizatze eta antolatze asmoa landu?
  - Trukaketaldiak plantan ezarri?
  - Sareen dinamika bat landu?
  - Mutualizazioa?
  - Nolako formakuntza gogoetatu?
  - Taldeen arteko loturak josi; ekoizpenerako laguntza, formakuntza; lekuak iraunkortzeko metodoa?

**Hedapenaren** problematikan, aurkituko da lehenik publikoa/publikoeri buruzko gogoeta eta formakuntzaren beharra.

Musika munduan, euskara baliabide gisa ikusten da. Bestalde hedatzeko mementoan komunikazioa pentsatzekoa da.

**Transmisioa:** Ongi transmititzeko giltzak: transmisio naturala berbultzatu eta instituzionala berpentsatu.

# EL<sup>o</sup>ARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

EUSKAL KORU KANTUA  
CHANT CHORAL BASQUE

## Lehen tailerra

2022ko otsailaren 17an - 18:00 > 21:00

Parte hartzaileak : 6 eragile

Animatzailea : H el ene Xarriton (Gogaide)

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratu ziren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestalde gerorako proiektzioak irudikatzea.

“Kantua koruetan” izan zen seigarren aztergaia, **2022ko otsailaren 17an**. Koru kantua aipatzen delarik, identifikatzen dira, kantu taldeak noski, baina ere zuzendariak (amaturrak eta profesionalak), egiturak eta elkarteak, errepertorioak...

### 1. KORU KANTUARI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, ondareaz, bilketaz, historiaz eta ikerketaz ari gara, nola antolatuak diren, nola transmititzen diren...

**Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Ondarea izugarria da, bilduma anitz eginak dira (Aita Donostia..).
  - EKEn, Eresbilen, AGORRILAn fondoak badaude.
  - Kantariek kantuen zentzua eta historia jakin nahi dute.
  - EKE-ren webgunean koru kantuen historia agertzen da.
  - Erakusketa ibiltariak izan dira.
  - Musika erakargarria da hitzetara jiteko harmonizazioa ongi pentsatua delarik.
  
- **Eskasak:**
  - Koruen historia falta da Iparraldean.
  - Bilketen kontserbazioa eta numerizazioa eskas da.
  - Ondare guzia ez da ezaguna.

- Eskuragarritasuna, fondoeri begira, komunikazioa eskas da.

Eta geroari begira, numerizazioa, bilketaren zentralizazioa eta eskuragarritasuna lantzekoak lirateke.

## 2. KORUEN BERRITZEA

Koruen berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela (amaturrena eta profesionalena), baina ez bakarrik.

**Berritzearen egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Kantu bilduma.
  - Koruen topaketa egun arrakastatsuak (4 igande + 2 kontzertu).
  - Ahozko teknika lantzen da.
  - Obren sorkuntzen programan parte hartzen da.
  - Hegoaldean autore baten inguruan proposatuak diren tailerretan parte hartzen da.
  - Ahotsaren Akademia ekimena ezagutzen da.
  - Donibane/Baionan Kantuz beste kantatzeko manerak dira.
- **Eskasak:**
  - Kide berrien atzemaiteko zailtasunak badira.
  - Gazteak erakartzeko zailtasunak.
  - Haur eta gazte koruak eska dira.
  - Kontserbatorioan euskal kantuaren presentzia eskasa da.
  - Errepertorioa berritzeko dirua eskas da.

**Eta geroari begira, hainbat proposamen badira, hala nola:** Jende gehiago ekarri behar da kanturat, bereziki gazteak, eskolatik harat.

## 3. KORUEN HEDAPENA

Koruen hedapenaz ari garelarik, publiko desberdinetaz ari gara (euskaldunak, erdaldunak, gazteak...), hedapen eremuetaz (Iparraldean, Hegoaldean, Euskal Herrikan kanpo), bai eta kontzertuak eskaintzeko tokietaz ere (gelak, elizak, festibalak...)

**Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Kostaldean publikoa bada, bereziki turistak.
  - Baiona Kantuz-erat gazte talde bat hurbildu da.
  - Haur tailerrak egin dira eta aitatxi-amatxi ikusterat jin dira.
  - Ahots Akademiaren dinamikatik abiatu da, haur koru bat muntatzeko ideia.

- Koru zuzendariak elkar ezagutzen dute eta beren artean ordezkapenak egiten ahal dituzte.
  - Elizako kantuak ere ederrak dira eta kantariak horien kantatzea maite dute.
- **Eskasak:**
    - Publikoa zaharra da.
    - Gazterik ez publikoan.
    - Lekuak eskas + elizetan errepertoriaren parte bat inposatua da, eta pagatu behar da.
    - Emanaldietan bakoitza bere aldetik ari da.
    - Elizako kantuak gazteentzat ez dira erakargarriak.
    - Pastoraletako edo ikusgarrietako taldeak ondotik desegiten dira, ez dute kantua segitzen.

Eta geroari begira, galderak heldu dira jakiteko publiko berria nola sentsibilizatu? Kantatzeko manera berriak ikertu? Gazte koruak muntatu?

#### 4. EUSKARAREN ERABILERA KORUETAN

Euskararen erabileraz ari garelarik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den.

**Euskararen praktikari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Kantuak jendea euskararat ekartzen ahal du, integrazioa tresna bat da.
  - Itzulpenak ematen dira.
  - Fonetikarako laguntza emana da.
  - Hegoaldekoekin harremanetan delarik euskara baliatzen da.
  - Euskara ikasten duen jende gehiago bada.
- **Eskasak:**
  - Taldeetan jendea gehienik frantsesez ari da.
  - Euskara guti mintzatzen da.
  - Gehienak kanpotik heldu dira.
  - Euskaldunak soilik haien artean ari dira.

**Geroari begira**, euskaraz diren proiektuen hedapenarekiko gogoeta bat eramateko beharra (itzulpen moduak, etab...) + Praktika pentsatzekoa da.

#### 5. KORUEN TRANSMIZIOA

Koruen transmizioaz ari garelarik, alde batetik publikoen sentsibilizazioaz ari gara, transmizio herritarraz, bai eta ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

## Transmizioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:

- **Baikorrak:**
  - Eskoletan egiten da.
  - Biarritzen Santa Ageda herrikoia + eskoletan interbentzioak egiten dituzte.
  - Elkarleen estatutuetan idatzia da Euskal kantuaren promozioa egitea.
  - Zuzendari baten ardura da, obra hautatzea bere koruaren arabera.
  - Koruen federazioa hor dago (1980tik), 28 talde biltzen ditu (ehun bat badira Iparraldean).
  - Euskara kantatzeko hizkuntza egokia da soinuen frekuentziaren aldetik. Philippe Albor, Denise Olhagaray eta beste batzuren dinamikak hor dira.
- **Eskasak:**
  - Familietan transmisioa desagertu da.
  - Erretretan direnak dira kantatzerat heldu.
  - Zendako gazteek ez dute segitzen eskolatik landa?

**Eta geroari begira**, zendako ez tailerrak partekatu? Kontserbatorioan kantu formakuntza sartu? Federazioa indartu euskal kantuaren sustatzeko? Partitura aiantziak arraberritu? Sentsibilizazioa eskoletan azkartzekoa da eta hezkuntza artistikoa antolatzekoa; audio fitxategiak egin kantatzen ikasteko.

## SINTESIA GISA

Zailtasun eta oztopo gehienak identifikatuak eta ezagutuak izan dira: bizipenak, egituratzea, arraberritzea eta transmizio kondukoak.

**Ondorioz, eztabaidan ezarriko genituzkeen galderak, geroari begira itzuliak izanen dira:**

→ **Memoriaren zainketa:** Nola pentsatu? Zein xedeekin? Norentzat? Noren gain utzi? Memoria/historia bizitzeko esperientziak sortu : numerizazioa, bilketaren zentralizazioa eta eskuragarritasuna nola landu?

→ **Berritzeak ere bere galderak ekartzen ditu:** Jende gehiago ekarri behar da kanturat, bereziki gazteak, eskolatik harat, nola egin?

→ **Hedapenaren problematikan, gogoeta egitekoa da:** Kantatzeko manera berriak ikertu? Gazte koruak muntatu?

Koruetan euskara guti erabilia da, gogoeta osoki eramatekoa da

→ **Transmizioa:** ongi transmititzeko giltzak: tailer partekatuei pentsatzen da, kontserbatoriotik abiatu kantu formakuntza bat? Partiturak arraberritzeko gogoeta, sentsibilizazioa eta hezkuntza artistikoa garatu?

# ELOARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

EUSKAL ARTE BISUALAK  
ARTS VISUELS BASQUES

## Lehen tailerra

2022ko otsailaren 24an - 18:00 > 21:00

Parte hartzaileak : 15 eragile

Animatzailea : H el ene Xarriton (Gogaide)

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratu ziren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestalde gerorako proiektzioak irudikatzea.

“Arte bisualak” izan zen seigarren aztergaia, **2022ko otsailaren 24an**. Arte bisualak aipatzen direlarik, identifikatzen dira, bisualki miresten diren edozein arte mota: margolaritza mota ezberdinak, edozein materialez egiten diren eskulturak edo josketak, argazkilaritza... Eragileetan amaturrak, profesionalak eta artistak sustatzen dituzten egiturak edo jendeak badaude.

**Gaiaren kokatzeko eztabaida piztu zen :**

- Euskal Herri mailan: jakina ez dela “Euskal arterik”; aldiz euskal artista edo/eta Euskal Herriko artista izendatzen delarik, zer suposatzen da? Bestalde, Euskal Herriarekin deus ikustekorik ez duen artista batek, zer lotura duke EKErekin? Eragileek euskararekin den lotura nola bizitu behar dute?
- Modelo ekonomiko mailan : zer da artista izatea? Biziko engaiamendu oso bat, hortik bizituz ala ez? Artistak sustatzen dituzten elkarteek, nor/zer ordezkatzten dute? Sustapenik gabe nola bizitzen da?

Ondoko saioa galdera horiek taldean argitzeko asmoz egingen da ; anartean, tailerretan bildu ziren oharrak ondotik partekatzen dira :

## 1. ARTE BISUALEI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, ondareaz ari gara, bilketaz, historiaz, ikerketaz... Nola antolatuak diren, nola transmititzen diren...



## Egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:

- **Baikorrak:**
  - Ondareak elikatzen gaitu.
  - Artistek laguntzen gaituzte ondarea beste gisaz ikusten.
  - Gure usaiako ikusmoldea inarosten dute, museifikatu gabe.
  - Desagertu diren jendeen ondarea bada (hortaz zer egin ?)
- **Eskasak:**
  - Memoriak ez gaitu mugatu behar.
  - Kasu eman behar da folklorizazio tendentziari ez dena egiazko memoria.
  - Bestalde kultura gutxiaren memoria eta historia ukatuak dira.
  - Ondorioz iturri gisa, eskas da.
  - Museoak eskas bereziki eskulturarentzat.
  - Baliabideak mugatuak dira eta galdu da ondare artistiko parte bat.

## Eta geroari begira, hainbat ideia agertzen dira, hala nola:

- Museo gune baten sortzea, artistak erresidentzian errezebitu.
- Folkloretik aterarazi – memoriatik harat, kanpoko eraginak baliatuz.
- Transmisioa gogozkatu/antolatu.

## 2. ARTE BISUALEN BERRITZEA

Arte bisualen berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela (amaturrena eta profesionalena), baina ez bakarrik. Gure alor honetan, arte bisualen sustatzeko, bide ezberdinak badira, hala nola: amaturrak, bakarkako profesionalak, sustatze elkarrekin edo instituzioek biziarazten dituztenak. Mundu ezezaguna da orokorrean (hemengo aldean?)

## “Berritzearen” egoerari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:

- **Baikorrak:**
  - Pandemia garaian MdA frantsesa hobetu da.
  - Amaturen eta profesionalen arteko muga artifizia da.
- **Eskasak:**
  - Eskas handiak badira artearen eta artisten biziarazteko, ezagutarazteko, bai estatutuaren aldetik (AGESSA, AFDAS, MdA...) bai ezagupenaren aldetik ere (antolatzaileek, instituzioek, publikoek, haien errola bete dezaten, artearen ekosisteman elgar ezagutu behar da, lanaren balioztapena identifikatu...).
  - Hots modelo ekonomiko iraunkorrik ez da, artistak ez dira kontsideratuak.
  - Artista profesionalak lagunduak izan behar dira.
  - Sorkuntza tailerrak, trukaketa, erakusketa lekuak eskas dira (balira, ez da aski dirurik haien biziarazteko).
  - Arte irakaskuntzan, tokiko artistak ez dira deituak.

## Eta geroari begira, hainbat proposamen badira, hala nola:

Artista herri bizian gehiago inplikatu behar litzateke, instrumentalizatu gabe ; entsegu leku idekiak garatu behar lirateke; instituzioak eta teknikalariak sentsibilizatzeak dira, artistak ikerlariak bezala kontsideratuak izateko; arte ekosistemeko aktore guziak kondutan hartzeak dira.

### 3. ARTEAREN HEDAPENA

Artearen hedapena aipatzen dugularik, publiko desberdinetaz ari gara (euskaldunak, erdaldunak, gazteak...) eta hedapen lurraldeetaz (tokikoa, ipar Euskal Herria, hego Euskal Herria, eskualdekoa, kanpokoak...).

Hedapenari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:

- **Baikorrak:** ?
- **Eskasak:**
  - Hedapena egin aitzin, ikertzeko eta sortzeko lekuak behar dira, tailer antolatuak.
  - Gela ekipatuak eskas dira. Sorkuntzen beharren baldintzak errespetatuko litzaketenak (Beka, saria, argitalpena,, autorearen eskubidea), hor ere artistaren estatua galdezkatua da.
  - Dirulaguntza mailan ari diren instituzioak.
  - Ez da Elkargoa, baizik eta departamendua, eskualdea etaministeritza.
  - Kultur alorreko hautetsiek ez dute halako gaitasunik.
  - Instituzioak ez dira arteari interesatzen.
  - Barnealdean lekuak eskas dira.
  - Espazio publikoetan obrak eskas dira.
  - Desoreka bada artisten kopuruaren eta artea biziarazteko diren baldintzen artean.
  - Publikoa gaztea edo heldua ez da sentsibilizatua.

**Eta geroari begira, ideiak, pistak horiek dira:**

Badena (nola idenifikatzen da) sustengatu behar da, artistak profesionalizatzeko lagundu behar dira; publikoa sentsibilizatzeko, TABAKALERA bezalako lekua eredutzat hartu behar litzateke. Lurraldeetako leku profesionalak garatu. Publiko gaztea artera ekartzekoa da.

### 4. EUSKARAREN ERABILERA ARTE BISUALEETAN

Euskararen erabilera aipatzen dugularik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den...

**Euskararen praktikari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**

- Hizkuntza, sorkuntzari zentzua eman diezaiokeen aberastasun bat da.
- Hizkuntzak irudimen artistikoa laguntzen du.
- **Eskasak:**
  - Arte bisualetan, dena erdaraz da.
  - Euskara baliatzeak perzepzio folkorizantea eman dezake.
  - Itzultzeko tresnak eskas dira.

Geroari begira, euskaraz diren proiektuen hedapenarekiko gogoeta bat eramateko beharra bada (itzulpen moduak, etab...).

Galderak ere badira: euskara ez delarik behar (atzerrian edo publikoa ez delarik euskalduna), noraino joan behar da euskararen baliapenarekin?

+ Praktika pentsatzekoa?

## 5. ARTE BISUALEN TRANSMISIOA

Arteen transmisioa aipatzen dugularik, alde batetik publikoen sentsibilizazioaz ari gara, transmizio herritarraz, baina ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

**Transmizioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Euskal Herriko Arte eskolak (ESAPB) lurraldeari sekulako bultzada eman dio.
  - Nerabeak hunkitu ditu, artistak edo irakasleak bilakatu direnak.
  - Badira formakuntzak egiteko egiturak (ezagutuak ez direnak).
- **Eskasak:**
  - Tresna pedagogikoak eskas dira heziketa artistikoa eramateko.
  - Euskal lurraldearekin lotura eza.

**Eta geroari begira, interesgarri litzateke probintzien arteko trukaketak antolatzea:**

- Artistak beren kabuz eskoletarat joan daitezten.
- Plataforma sortu (hemengo?) erreferentziekin (artisten espazioak, erakusketa lekuak, bitartekariak, elkarteak eta egiturak, material pedagogikoa, katalogoak...).

## SINTESIA GISA

EKEren ikuspuntutik, beharrezkoa da euskaratik eta Euskal Herritik abiatzea, ikuspegien edo ekimenen partekatzeke, lau urteko proiektua diseinatu aitzin.

Ondorioz, heldu den saioa xede horiei begira antolatua izanen da. Irakurketa amankomuna bilatuko da, ikuspunduak partekatzea, ideien elkarketa eta dinamika bultzatzeko.

## EKE-k proposatzen du:

- Euskara eta Euskal Herria kokatzea arte bisualei buruzko diskurtsoetan.
- Pundu amankomunak adostea, elgarrekilako dinamika bat abiatu aitzin, eta EKEekin batean elkarlanean aritzeko.
- 04/23an iraganen den alor guzien aurkezpen amankomuna gogoetatzea.

# ELARTUZ

Kultura diagnostiko partekatua

EUSKAL ZINEMA  
CINÉMA BASQUE

## Lehen tailerra

2022ko martxoaren 3an - 18:00 > 21:00

Parte hartzaileak : 6 eragile

Animatzailea : Hélène Xarriton (Gogaide)

## BILDUMA

Lehen parte batean, gaia eta erronkak aurkeztuak izan ziren. Ondotik azalpenak eman ziren ariketaren argitzeko. Ariketa egin ondoren, horra lehen ondorioak nola ateratu ziren, jakinez ardatz bakoitzarentzat eskatua zela, alde batetik oraiko egoera aztertzea eta bestalde gerorako proiektzioak irudikatzea.

Zinema izan zen zortzigarren aztergaia, **2022ko martxoaren 3an**. Zinema aipatzen dugularik, eragile guzietaz (aktoreak, egileak, zuzendariak, teknikalariak...), hedapen leku/aretoetaz, publikoetaz eta ekoizleatza ari gara.

Euskal zinemaren halako definizio bat ematen saiatu gara, baina definizio ezberdinak agertzen dira. Josean Fernandezentzat adibidez, EH-ko ekoizpenek osatzen dute Euskal zinema. Parte hartzaile batzuek diote ez dela euskal zinema euskaratik bereizten ahal. Eztabaida zabalik da...

## 1. ZINEMARI BURUZKO MEMORIA

Memoria aipatzen dugularik, honetaz ari gara: ondarea, bilketa, historia eta ikerketa nola antolatuak diren, nola transmititzen diren.

Egoerari begira, hara zeintzuk izan diren oharrak:

- **Baikorrak:**
  - Hegoaldean ekoizpen handia da. Bilketa, ondarearen ikerketa ere bai. Adib. Emazte zuzendarieri buruz egiten den ikerketa.
  - Liburuak, filmografia bada.
  - Zinema areto anitz badira eta dinamikoak.
- **Eskasak:**
  - Datubaserik ez da.

- Sortzeko dirua eta lekuak eskas.
- Eskugarritasuna zaila da, filmografientzat adibidez; ikerketen datuak falta dira.

**Eta geroari begira, hainbat ideia agertzen dira, hala nola:** ganbara.eus-ek egiten duen bilketa lana egonkortzekoa dela; Ondarea EH-mailan egituratu behar litzatekeela; bilketa gune bat sortu memoria, ondarea transmititzeko, Euskal ondarearen katalogoa eskuragarritzat eman, (dokumentalak, fikzioak). Goi mailako ikerketa ezagutarazi (Euskal zinema “Pour les nuls” gisako tresnen bidez; ezagutzak partekatu, aitzinekoek egin dutena bildu.

## 2. ZINEMAREN BERRITZEA

Zinemaren berritzea aipatzen delarik, bistan da sorkuntza irudikatzen dela, baina ez bakarrik:

**“Berritzearen” egoerari begira, hara zeintzuk izan diren oharrak:**

- **Baikorrak:**
  - (Hegoaldean) sorkuntza anitz bada profesionala zein amaturra.
  - Euskararekin lotura naturala(goa) da.
- **Eskasak:**
  - Kolektibitateak sensibilizatu behar dira aretoak zahartu ez daitezen.
  - Artistek erresistentzia izaten ahal dute, diru laguntzaren beharra.
  - Auto-ekoizpenak mugak baditu, nahiz eta bolondresen lana bikaina izan.
  - Prekaritate egoerak badira.

**Eta geroari begira, hainbat proposamen badira, hala nola:** epe luzeko estrategia izaten da eta ez da berehalako emaitzarik itxoin behar; profesionalak sortzeko prozesu luzea da; sensibilizazio lan bat egin jendea zinema lanbideetara ekarrarazteko; zinegeletako jendea formatu; egonaldiak egin gazteentzat, tailerrak sortu, etengabe parioak egin; geroari begira transmizio/berritze zikloa da; instituzioak hemengo zinemagintzari sensibilizatuz inplikatu behar dira; zinema gelak arraberritu.

## 3. ZINEMAREN HEDAPENA

Zinemaren hedapena aipatzen dugularik, honetaz ari gara: publiko ezberdinak (euskaldunak, erdaldunak, Euskal Herritik kanpoko jendea...), banaketa zirkuituak (gelak, toki publikoak...)

**Hedapenari begira hara zeintzuk izan diren oharrak:**

- **Baikorrak:**
  - Dispositibo bikainak badira (Kimuak, Laburbira, festibalak...).

- Arloa orokorki hartuz, erakargarria da (mundu mailakoa, publiko zabala, etab.)
  - Hemengo ekoizpena: publiko bat bada. Ikuslegoa fidela da eta gehiago eskatzen du.
  - Lekuak badira.
  - Hedapen tresnak badira: banatzaileak, sareak, telebista... Baina egonkortu behar dira.
- **Eskasak:**
    - Dispositiboak ez dira hain ezagunak.
    - Hedapen sistema hor da, baina ahalak eta komunikazio eskasa.
    - Zaila hego Euskal Herriko filmak ipar Euskal Herrian hedatzea (muga).
    - Bizi laburra / ateratzeko zaila.
    - Zailtasun ekonomikoak badira.
    - Komunikazio eskasa (dirua).
    - Filmak proiektatzeko arazoak: muga fisikoa.
    - Gazte guti ikusten dira zinegeletan.
    - Covidarekin ohiturak aldatu dira (gehiago eta fiteago): VOD plataforma handiak. Euskal zinemaren tokia panorama horretan?

**Eta geroari begira, ideiak, pistak hauek dira:** ekoizpena egonkortzeko estrategia gogoetatzekoa da. Euskal Herri mailan pentsatu behar da, mugazgaindiko bideak ideki. Publiko berria jinarazi, hedapena garatu Euskal Herri barnekaldean. Beste proiektzio formatuak asmatu.

Gaurko hedabideak egonkortu.

#### 4. EUSKARAREN ERABILERA ZINEMA ALORREAN

Euskararen erabilera aipatzen dugularik, elkarbizitzaz ari gara, komunikazio euskarrietaz, publikoekin eta partaideekin egiten den komunikazioaz, euskararen hautua nola kokatzen den...

**Euskararen praktikari begira hara zeintzuk izan diren oharrak:**

- **Baikorrak:**
  - Euskarazko sortzaileak agertzen dira.
  - Arnasgune batzuk badaude: Zinegin, Lekeitio, Josu Martinez-en filmak, Gastibeltza... hizkuntza amankomuna izatea bikaina da.
  - Teknologia berriak euskararen alde jokatzen dute.
  - Zinema tresna egokia da euskara zabaltzeko.
- **Eskasak:**
  - Gizartearen isla da, hizkuntzen arteko podere harremana.
  - Ekosistema ez da osoki euskaraz, azpitoluluak beti, frantsesaren kutsadura, hegoaldeko akzentua (eta alderantziz).
  - Lan egiteko manera eta egoera ezberdinak badira Hegoaren eta Iparraren artean.
  - Bikoizketak eskas dira.

- Euskarazko ekoizpena ahula da eta ez eskuragarria.

### **Geroari begira, pistak hauek dira:**

- Bikoizketa barneratu eta garatu.
- Euskarazko azpigitulu idatziak garatu eta eskuragarri eman.
- Sortzaileak lurraldeari lotu behar dira euskarazko filmak ateratzeko.
- Mugazgaindiko eskubideen arazoa konpondu.
- Eskolan berean muga psikologikoak apurtu.
- Arnasgune gehiago eta maizago.

## **5. ZINEMAREN TRANSMISIOA**

Zinemaren transmisioa aipatzen dugularik, alde batetik publikoen sentsibilizazioaz ari gara, transmisio herritarraz, baina ere pedagogiaz, formakuntzaz eta hezkuntza artistikoaz.

### **Transmisioari begira, hara oharrak zeintzuk izan diren:**

- **Baikorrak:**
  - Eskolentzako dispositiboak bikainak dira, ikasleak eta irakasleak interesatuak dira (Zineskola, Collège au cinéma, Zukugailua, Kanaldude...).
  - Kanaldudek ematen dituen formakuntza profesionalak eta laguntzaileenak bikainak dira..
  - Eskaintza bada eskoletan, ikastaroak, egonaldiak.
  - Kalitatezko transmisioa bada.
- **Eskasak:**
  - Unibertsitateko ikerketak zabaldu behar dira.
  - Euskarazko irudi heziketa ez da garatua.
  - Boluntarioak behar dira, baina arriskutsua da egonkortasunaren aldetik.
  - Zinema ikasteko eta lan egiteko, asko ipar Euskal Herritik kanpo joaten dira.

### **Eta geroari begira, anitz ideia eta pista dira lantzekoak, adib.:**

- Irudi heziketa Euskal Herri mailan garatu.
- Eskoletako dispositiboak garatu (lizeoa) eta egonkortu.
- Sortzaileendako egonaldi gehiago antolatu.
- Mediazioa eta bitartekaritza sortu, formatu, garatu.
- Hiztegi teknikoa garatu.
- Erreferentzia amankomunak sortu, bizitu.
- Mugazgaindiko formakuntza zentro bat izan elkarlanean aritzeko. Formakuntzak euskaraz egin; BTS/EQ zineskola.



## SINTESIA GISA

Euskal zinemaren kokapena Ipar Euskal Herrian, izan dadin instituzioei begira, Hegoaldekilako harremanei begira, modelo ekonomikoei begira, proiektu profesional zein amaturrei begira... Hori da trukaketaren eta eztabaidaren muina.

**3**

**PROPOSAMENEN  
TAULAK  
#2. TAILERRAK**



Euskal antzerkiari buruzko *Elkartuz*-en 2. tailerlean (2021-11-04), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerlean aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea).

## MEMORIA

LAN ARDATZAK	Bozak
IKERKETA TRESNAK / TRESNA NUMERIKOAK GARATU	5
ANTZERKIARI BURUZKO DOKUMENTAZIO ZENTRO BAT SORTU	3
MEMORIAREN INGURUKO ARARTEKOLARIAK	1

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
ESPERIMENTAZIOAK EGIN	1

## HEDAPENA

LAN ARDATZAK	Bozak
IBILKI PROGRAMA DEKLINATU	5
HEDAPENA EGIN EUSKAL HERRITIK KANPO	2
HEDAPEN LEKUEN KARTOGRAFIA BAT EGIN	2
HEDAPENAREN HELBURUAK IDENTIFIKATU, PUBLIKOAK EZAGUTU ETA ZIBLATU	1
PROGRAMAZIO AUSART BAT PLANTAN JARRI	0

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	Bozak
EUSKARA SEXY BILAKARAZI	2
EUSKARAREN PRESENTZIA ZAINDU PROZESU GUZIAN ZE HAR	2

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak	LAN ARDATZAK	Bozak
A.D.E.L. BAT ANTOLATU IPAR EUSKAL HERRIAN (ARTEDRAMAMA EUSKAL LABORATEGIA)	7	ANTZERKIA TRESNA PEDAGOGIKO BEZALA	3
IDAZLEEN FORMAKUNTZA	4	SENTSIBILIZAZIO BIDEAK	2
ANTZERKI ESKOLA	4	AHOZKO ONDAREAREN TRANSMISIOA	1
KLASIKOAK ESKOLETAN EZAGUTARAZI, TRANSMISIOA SEGURTATU BELAUNALDI GAZTEEI	4	EUSKAL ANTZERKIAREN HISTORIA EZAGUTARAZI	1
ZENTZUZ BETEAK DIREN SINBOLOAK ETA MITOAK TRANSMITITU	3	TALDEEN ARTEKO EGONALDIAK ETA TRUKAKETA UNEAK ANTOLATU (ADEL ?)	1
TRESNA PEDAGOGIKOAK SORTU	3	GAINTITULUAK EZARTZEKO FORMAKUNTZAK	0
		HERRITAR FORMAKUNTZA (POLITIKO) BAT ERAIKI	0

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak	LAN ARDATZAK	Bozak
ALORRA EKONOMIKOKI EGITURATU	2	ANTZERKI FEDERAZIO BAT BULTZATU 7 LURRALDEENTZAT	0
ARGITASUNAK EMAN ERAKUNDE PUBLIKOEN EKARRI SOSTENGUARI BURUZKO IRUDIPENAZ	2	AMATURREN ETA PROFESIOALEN ARTEKO ZUBIAK SORTU	0
SARE PROFESIONALA EGITURATU	2	EMAZTE GEHIAGO ANTZERKIAREN MUNDUAN	0



# dantza & dantzatzeko musikak

Dantzari eta dantzatzeko musikei buruzko *Elkartuz*-en 2. tailerrean (2021-11-09), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerrean aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea).

## MEMORIA

LAN ARDATZAK	Bozak
HISTORIA BIZI – MEMORIA MARTXAN JARRI	3
ERRITUAK ATXIKI ETA AZKARTU	3
WEBGUNE BAT ETA LIBURUTEGI BAT SORTU	2
BILKETA LAN BAT EGIN	0

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	Bozak
JENDEA EUSKARARA HURBILARAZI DANTZARI ETA MUSIKARI ESKER	2
EUSKARAREKIKO AUSARTAGOAK IZAN	0

## HEDAPENA

LAN ARDATZAK	Bozak
DANTZA GARATU PLAZA PUBLIKOAN	7
IPAR ETA HEGO EUSKAL HERRIAREN ARTEKO LOTURAK AZKARTU	5
BESTEN EGUTEGIA BERPIZTU	1
EUSKAL HERRITIK KANPOKO HEDAPENA	1
EUSKAL HERRITIK KANPOKO HEDAPENA	0
LURRALDEAN ESKAINTZA HOMOGENEIZATU	0
ERAKUNDE PUBLIKOEN EGINKIZUNA (BERRIZ) PENTSATU HEDAPEN MAILAN	0

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
PEDAGOGIARI BURUZ LAN EGIN	7
FORMAKUNTZARENDAKO MATERIALA IDENTIFIKATU ETA BILDU (MUSIKAK, ERRITMOAK, URRATSAK, KANTUAK...)	7
ZENTZUARI BURUZ LAN EGIN	6
TRANSMITITZEKO GOGOIA EMAN	5
IRAKASLE BERRI BATZUK FORMATU	3
IRAKASLE/TRANSMITITZAILE SAREA INDARTU	2
SENTSIBILIZAZIO BIDEAK	0

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak
SEGIPENA ETA GARAPENA LUZAROAN	3
MUGAK EZEZTATU (ELKARTEAK/ARTISTAK)	1
TOPIKOEI BURUZKO LAN BAT EGIN (SEXUA, GORPUTZA, TEKNIKAK, KULTURA)	0

LAN ARDATZAK	Bozak
AUZO KULTURETAN INSPIRATU	0
TRUKAKETAK, SOLASALDIAK ETA IKASTALDIAK ANTOLATU	0
PUBLIKO BERRIAK SENTSIBILIZATU-KANPAINAK SORTU	0
ORDEZKARIEN SARE BAT ANTOLATU	0

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
ERRONKA BATZUK INTEGRATU	2
DANTZARAKO GUSTUA GARATU	1
EKOIZPEN LANA ANTOLATU, ERRAZTU ETA BULTZATU, HERRIETAN ANTOLATU IKUSGARRIENTZAT	1
PROFESIONALEN ETA AMATURREN ARTEKO LOTURAK AZKARTU	1
PROFESIONALEI ZUZENDU EGITASMO DEIALDIAK EGIN, ELKARLANA ETA BERRITZEA BULTZATZEKO	0



Euskal literaturari buruzko *Elkartuz*-en 2. tailerrean (2021-11-18), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerrean aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea, besterik).

## MEMORIA

LAN ARDATZAK	Bozak
ESPERIENTZIAK ETA LEKUKOTASUNAK (ELEKETA?) BILDU - SORKUNTZA LAGUNDU	3
ONDAREA BALORATU	2
IKERKETAK BEHARREN ARABERA PROGRAMATU	1
IKERKETA LANAK IRAKURRI ETA AZTERTU	1
EUSKAL LIBURUTEGI NAZIONALA	1
BILKETA LANA EGITURATU ETA PLANIFIKATU	0
UNIBERTSITATEKO LANAK BALIATU ETA EZAGUTARAZI	0
BILKETA BALIATU IPUINAREN ALORREAN	0

## HEDAPENA

LAN ARDATZAK	Bozak
GOGOETA BAT ERAMAN HEDAPENAREN ETA INFORMAZIOAREN-SUSTATZEAREN INGURUAN	9
AZOKAK INDARTU	8
LITERATURAREN TOKIA AZKARTU KOMUNIKABIDEETAN	5
LITERATURA LEHIAKETA, PUBLIKOAREN SARIAREKIN	2
LITERATURA SARRARAZI EUSKAL TALDE ETA "MOMENTUETAN"	1
MERKATUA EZAGUTU	1
ARGIALETXEEN ETA SORTZAILEEN ARTEKO TRUKAKETA BATZUK PLANIFIKATU	0
MEDIATEKEN LANA LAGUNDU	0
WEBGUNEAK, PLATAFORMAK ETA SARE SOZIALAK BALIATU	0

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
PLAZERA TRANSMITITU	8
IRAKURKETA KLUBAK INDARTU, ESKOLAREN EGINKIZUNA	4
FORMAKUNTZAK SORTU IDAZLE ETA IPUIN KONDALARIENTZAT	3
IDAZLEAK ESKOLETAN GOMITATU	1
HORTARA DEDIKATUA DEN LANGILE BAT HERRIETAN	1
ESKOLAREN ETA IDAZLE/IPUIN KONDALARIEN ARTEKO LOTURAK AZKARTU	1
IRAKASLEAK FORMATU	0
UNIBERTSITATEAN, HAUR LITERATURARI BURUZ LAN EGIN ETA LITERATURA HORI BULTZATU	0
FAMILIA TRANSMISIOA LAGUNDU	0

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak
ZUBIAK ERAIKI	7
OASIAK SORTU	2

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
GAZTE LITERATURA ERAKARGARRIA EKOIZTU: KOMIKI, MANGA, AUDIO, E-BOOK...	5
DIRULAGUNTZA ETA SOSTENGU SISTEMA BATI BURUZ GOGOETATU (IDAZLE, IPUIN KONDALARI, ILUSTRATZAILE...)	2
IDAZLE TAILER GEHIAGO SORTU	1
IPUIN BERRIAK IDATZI	1
BESTE ALORREKIN LAN EGIN	1
AHOZKOTASUNARI LEHENTASUNA EMAN	1
EKOIZPENEN INGURUKO PLANIFIKAZIOA	0

## BESTERIK

EUSKAL IPUINGINTZA MUNDU MAILAN (HARREMANAK KANPOKO IPUIN KONDALARIEKIN)	3
OROITARAZI IPUINGINTZA HELDUENTZAT DELA ERE	1
LIBURU OBJEKTU BEZALA	0
TESTUA ETA IPUINA ELKARTU	0
EUSKAL MITOLOGIA LANDU - ZENTZUA EMAN	0





# bertsolaritza

Bertsolaritzari buruzko *Elkartuz*-en 2. tailerrean (2021-11-25), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerrean aipatu izan zirenen artean.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea).

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	LAN ARDATZAK
TRANSMISIOA HERRIETAN LOKALIZATU, TRANSMISIO HERRIKOIA ERROTU	BARNEKALDEKO BERTSO ESKOLAK INDARTU
PUBLIKOAREKIN TRUKATU ETA "LAN EGIN"	GAU ESKOLETAKO IKASLEEN JOAN
BERTSO ESKOLA BAT SORTU HELDUENTZAT	SENTSIBILIZAZIO OROKORRA AZKARTU

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	LAN ARDATZAK
XXI. MENDEKO BERTSOLARIAREN IRUDIARI BURUZ LAN EGIN, PROFESIONALIZATU	TRUKAKETAK ANTOLATU ETA MUGAZ GAINEN PROIEKTUAK MUNTATU
GARAPEN PLAN OROKOR BAT IDATZI ETA ZABALDU	
BERTSOLARI TALDEAK BIDERKATU ETA TALDE HORIEK AZKARTU, TRUKAKETEN ERRAZTEKO	

## HEDAPENA

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	LAN ARDATZAK
TALDE HIBRIDOAK SORTU, HIZKUNTZARI BURUZ LAN EGITEKO (KANTUA, ANTZERKIA, IPUINA, BERTSOA...)	BERTSO SAIOAK ETA BESTE KULTURA GERTAKARIEKILAKO GURUTZATZEA ANTOLATU
	PUBLIKOAREN SARIA SORTU FINALENTZAT
	"HAIZEA DATOR" INDARTU



# gaurko musikak

Gaurko musikei buruzko Elkartuz-en 2. tailerrea (2022-03-10), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerrea aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea).

## MEMORIA

LAN ARDATZAK	Bozak
ZENTZUARI ETA MAMIARI BURUZ LAN EGIN	6
MEDIATEKEN ETA IRRATIEN KONTSERBAZIO EGINKIZUNA (ARGITALPENAK BILDU)	0

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	Bozak
EUSKARAZKO SORKUNTZA (ZER?)	2
LAN EGIN PROIEKTUEN EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO BATI BURUZ	2

## HEDAPENA

LAN ARDATZAK	Bozak
PUBLIKOAREN KONTZEPTUA BERRIZ PENTSATU	3
EREDU BAT ASMATU HEDAPENARENTZAT	2
HEDAPEN LEKUAK BIDERKATU (NOLA ?)	2
HEDAPEN LEKUAK IRAUNARAZI	1

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
FORMAKUNTZA	7
TRANSMISIO NATURALA ETA INSTITUZIONALA SUSTATU	6
FORMAKUNTZA DENENTZAT	4
TRANSMISIOA ANTOLATU	4
EUSKAL MUSIKAREN HISTORIA IDATZI ETA TRANSMITITU	3
IRAKASKUNTZA EREDUA BERRANTOLATU	1

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
PRAKTIKA SUSTATU	8
EKOIZPENA LAGUNDU	5
AHALEN ETA EMAITZEN ARTEKO EGOKITASUNA BILATU	3
EGONALDIAK BIZIARAZI	2
KOORDINAZIO LANA	1
TALDE BATEN ALDEKO APUSTUA	1

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak
HEGO EUSKAL HERRIAREKILAKO LOTURAK AZKARTU	7
EKOSISTEMA BAT SORTU	5
TALDEEN ARTEKO LOTURAK SORTU	1
TRUKAKETA GARAIK ANTOLATU	1



# koru kantua

Euskal koru kantuari buruzko Elkartuz-en 2. tailerlean (2022-03-17), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerlean aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea, besterik).

## MEMORIA

LAN ARDATZAK	Bozak
BILKETAREN ZENTRALIZATZEA ETA NUMERIZATZEA	3
FONDOAK IDENTIFIKATU, EGITURATU ETA SAREAN EMAN	1
ITZULPENEI ETA EUSKARRI ELEBIDUNEI BURUZ LAN EGIN	1
AUDIO FITXATEGIAK GRABATU	1
PARTITURA ZAHARRAK EGUNERATU	0

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	Bozak
EUSKARAREN PRAKTIKA SUSTATU	2

## HEDAPENA

LAN ARDATZAK	Bozak
BESTE ALOR ARTISTIKOEI UZTARTU KANTU FESTIBALA	5
ELIZAK EZ DIREN BESTE HEDAPEN TOKIAK ATXEMAN	1
KOMUNIKAZIOA : SARE SOZIALAK	1

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
ERREPERTORIOA BERRITU	3

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
SENTSIBILIZAZIOA AZKARTU ESKOLETAN	7
GAZTEAK ERAKARRI ESKOLA GARAITIK KANPO	6
EUSKAL KANTU KLASEAK KONTSERBATORIOAN	3
TRUKAKETAK, TAILERRAK PARTEKATU	2
GAZTE KORU BAT SORTU	1

SI

## BESTERIK

LAN ARDATZAK	Bozak
KANTATZEKO MODUA GALDEZKATU	5
ESKURAGARRITASUNARI BURUZ GOGOETATU	0
PUBLIKOA BERRITU	0

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak
FEDERAZIOA AZKARTU	7



# arte bisualak

Arte bisualei buruzko *Elkartuz*-en 2. tailerrean (2022-03-24), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerrean aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea).

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
PUBLIKO DESBERDINAK SENTSIBILIZATU	5
EUSKAL KULTURAREN IRUDI FOLKLORIZATUA DESEGIN	1
TRANSMISIOARI BURUZ GOGOETATU	0

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
EGONALDIAK GARATU	3
TAILERRAK IREKI	1

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak	LAN ARDATZAK	Bozak
ARTISTA LURRALDEAREN BIZIAN INPLIKARAZI	9	PLATAFORMA BAT SORTU IPARRALDEAN, DENA ZENTRALIZATZEKO	3
ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA TEKNIKARIAK SENTSIBILIZATU	7	EKOSISTEMA EGITURATU	1
LURRALDE DESBERDINETAKO ARTISTEN ARTEAN TRUKAKETAK EGIN	4		

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	Bozak
EUSKARAREN TOKIARI BURUZ GOGOETATU	2



Euskal zinemari buruzko *Elkartuz*-en 2. tailerrean (2022-03-29), parte hartzaile bakoitzak lehentasunezkoak iduritzen zaizkion 3 lan ardatz hautatu ditu 1. tailerrean aipatu izan zirenen artean.

Hona hemen ardatz bakoitzak eskuratu boz kopurua.

Analisiarentzat, ardatz bakoitza gai nagusi baten arabera sailkatu dugu (memoria, sorkuntza, hedapena, euskara, transmisioa - formakuntza, egituratzea, besterik).

## MEMORIA

LAN ARDATZAK	Bozak
GANBARA.EUS ATARIAREN BILKETA LANA AZKARTU, KATALOGO BAT OSATU ETA BANATU	1
IKERKETA LANAK EZAGUTARAZI	0

## EUSKARA

LAN ARDATZAK	Bozak
AZPITITULUAK EUSKARAZ	0

## EGITURATZEA

LAN ARDATZAK	Bozak
EUSKAL HERRI MAILAKO EGITURAKETA - MUGAZ GAINKO ZUBIAK SORTU (KIMUAK, NOKA)	4
EPE LUZERAKO ESTRATEGIA	0

## HEDAPENA

LAN ARDATZAK	Bozak
PUBLIKO BERRI BAT ERAKARRI	1
ZINEGELAK KUDEATZEN DITUZTEN PERTSONAK FORMATU	1
PROIEKZIO FORMA BERRIAK ASMATU	1

## BESTERIK

LAN ARDATZAK	Bozak
MUGAZ GAINKO ESKUBIDEEN ARAZOA KONPONDU (NETFLIX, ESKUBIDEAK...)	2
MUGA PSIKOLOGIKOAK EZEZTATU	0

## TRANSMISIOA - FORMAKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
FORMAKUNTZA ZENTRO BAT SORTU	3
PROFESIONALAK "SORTU"	2
ESKOLA-DISPOSITIBOAK GARATU	0
EUSKAL ZINEMA ZOZOENTZAT	0
BITARTEKARITZA EGITURATU	0
JAKITATEAK PARTEKATU, LEHENGOENAK BILDU	0

## SORKUNTZA

LAN ARDATZAK	Bozak
EKOIZPENA AZKARTU (SORTZAILEAK + EKOIZLEAK)	5
EGONALDIAK PROPOSATU	3
SORTZAILEAK LURRALDEARI IDENTIFIKA DAITEZEN LAGUNDU	3
BIKOIZKETARI BURUZ LAN EGIN ETA HORI GARATU	1
APUSTUAK EGIN	1



**4**

**"EKINTZAK/UTOPIAK"  
FITXAK**

**2022/04/23 - SINTESIA**

**EL  ARTUZ**



# ANTZERKILARI TOPAKETA

EUSKAL  
ANTZERKILARIEN  
TOPAKETA-FESTIBALA

- TRANSMISIOA (ESKOLA / GUNEA / ETXEA)
- FORMAKUNTZA
- PEDAGOGIA

- ANTZERKILARI TOPAKETA
- IBILKI PROGRAMA DEKLINATU
- DATUBASEA



- GAZTEAK ERAKARRI

## **FEDERAZIOA INDARTU**

RENFORCER LA FÉDÉRATION  
*IPARRALDEKO ABESBATZEN  
ELKARTEA*

- FESTIBALA
- ELKARTASUNA
- ESKOLETAKO SENTSIBILIZAZIOA  
AZKARTU



- IRAKURLEGOA ZABALDU
- LITERATURA SAREA  
INDARTU

## **LANTALDE BAT SORTU**

- ERAGILEEN ARTEAN  
ZUBIAK SORTU
- ANIZTASUNA EMENDATU  
EKOIZPENETAN
- AZOKAK INDARTU
- LITERATURAREN LEKUA  
HEDABIDEETAN INDARTU

# EUSKAL DANTZA

DANSE BASQUE



ametsak

DANTZA MUSIKATUEN  
TRANSMITITZAILEEN

## FORMAKUNTZAREN EGITURAKETA

- FORMAKUNTZAK EGIN (TRANSMISORAKO)
- MATERIALA PEDAGOGIKOA BILDU/SORTU
- DANTZA PLAZAN BERRIZ AGERTARAZI (HITZORDUAK SORTU)

- ZENTZUA LANDU (HISTORIA JAKIN - MEMORIA EZAGUTU)
- PEDAGOGIA AMANKOMUNAKAN
- TRANSMITITZEKO LILURA PIZTU
- EUSKARAZ DANTZATU



# BERTSOLARITZA



ametsak

IPAR EH OSOAN  
BERTSOLARIAK "AGERTZEA"  
ETA BERTSOLARITZA  
INDARTSU IZATEA ETA EH  
MAILAN BESTEEN HEINEKO  
LEKUA HARTZEA

## BERTSOLARI GAZTEAK EKARRI

HAIENDA KO PLAZA SORTU,  
BIHARKO BERTSOLARITZA  
SEND OA ERAIKITZEKO

- SAIO XUMEAK ANTOLATU
- BERTSO JAIALDI BAT  
HERRIALDE BAKOITZEAN
- SAIO FINKOAK "SORTU"



# ARTE BISUALAK

ARTS VISUELS EN PAYS BASQUE



ametsak

PROPOSITION D'  
**ITINÉRAIRE  
D'ARTS  
VISUELS**

**DANS 20 LIEUX  
DU PAYS BASQUE  
(À BUDGÉTISER)**

- > Avec entrée "fil rouge",
- > Dans de bonnes conditions
- > Sur 1 an et demi

- OUVRIR DES LIEUX
- EXPOSER DANS DES LIEUX PUBLICS
- INVITER LES ARTISTES À LA RÉFLEXION CIVILE/CIVIQUE DES ESPACES PUBLICS
- SENSIBILISATION VS CRÉATION
- EXPO COLLECTIVE VIA ICB OU PARCOURS = ARTS VISUELS VIVANTS (AVEC LES AUTRES ARTS : BERTSOLARISME...)

- CONSIDÉRATION DE LA RECHERCHE
- DES SCULPTURES À TOUS LES RONDS-POINTS, DANS LES ESPACES PUBLICS, LES FORÊTS
- QUE LES ENFANTS RECONNAISSENT LES ARTISTES DANS L'ESPACE PUBLIC



# EUSKAL ZINEMA

CINÉMA BASQUE



ametsak

## ZUKUGAILU EGITURAREN EGONKORTZEA

- FORMAKUNTZA ZENTRO BATEN BEHARRA
- SORTZAILEENTZAT ERRESIDENTZIAK PLANTAN EZARRI
- MASTER CLASS PROFESIONALENTZAT
- ELKARTRUKE MEMENTU ANTOLATUAK ETA ANIMATUAK
- UDAKO EGONALDIK ANTOLATU
- FESTIBALETAKO PROGRAMETAN PROFESIONALEN ARTEKO TRUKAKETAK ANTOLATU

- EUSKAL HERRI MAILAKO EKOSISTEMA PRODUKZIOAN, BANAKETAN ETA IRUDI HEZIKETAN
- EUSKAL ZINEMAREN ERREFERENTZIA AMANKOMUNAK PARTEKATZEA
- EUSKAL ZINEMA BULTZATZEKO MUGAZGAINDIKO SUSTENGU FONDO BAT. (IDAZKERA, EKOIZPENA, BANAKETA)
- EUSKAL SOFICA BAT SORTU, ZINEMAN INBERTITUKO DEN DIRU PRIBATUAREN BILTZEKO





# GAURKO MUSIKAK

MUSIQUES D'AUJOURD'HUI



ametsak

## URTERO EGUN BAT ANTOLATU

PROIEKTUAK  
ASMATZEKO / EGITEKO

1. MUSIKARIEN BILTZARRA
2. JO GUNEA ZERRENDATU (SORTZEKOAK EDO DIRENA JADA).  
BADOK.EUS BEZALAKO PROIEKTUAK LAGUNDU
3. MUSIKA ONDAREA GUZIA ESKURAGARRI EZARRI
4. PROFESIONALIZATU NAHI DUENARENTZAT EKOIZPENERAKO FORMAKUNTZA SORTU

1. PRAKTIKA BULTZATU (LEKUAK ETA TRANSMISIO UNEAK BIDERKATU, HEDADURA AZKARTU, IKUSLEAK GEHIAGO HUNKITUZ)
2. LURRALDEKO ESKOLA ALTERNATIBOA



**5**

## **TELEKARGATZEN AHAL DIREN GAINERAKO DOKUMENTUAK**



**#1. TAILERRETAN ERABILI ZIREN  
AURKEZPENAK**

<https://files.eke.eus/elkartuz/pp-elkartuz.pdf>



**SINTESIA EGUNEAN ERABILI ZEN  
AURKEZPENA**

<https://files.eke.eus/elkartuz/apirila2022.pdf>

**6**

# PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA

EL  ARTUZ

## **Parte-hartzaileen eta ekarpen-egileen zerrenda**

### **Antzerkia**

Arantxa Hirigoyen, Kattalin Sallaberry, Jokin Irungaray, Xan Berterretxe, Peio Berterretxe, Aritz Bidegain, Ixabel Millet, Bernadette Iratzoki Luro, Maryse Urruty, Ander Fernandez, Camille Luthereau, Maika Etchecopar.

### **Euskal dantza eta dantzatzeko musikak**

Ihintza Irungaray, Xabi Etcheverry, Pauline Lafitte, Thomas Brillaxis, Arantxa Lannes, Pierre Haira, Julien Corbineau, Joana Olasagasti, Betti Bidart, Mixel Etxecopar, Eneka Bordato Riano, Jon Iruretagoyena, Maider Martineau, Laure Perez, Laure Duhalde.

### **Literatura**

Marie-Andrée Ouret, Peio d'Uhalt, Maialen Alfaro, Elise Dilet, Dani Duhalde, Katixa Dolharé, Aines Dufau, Lucien Etxezaharreta, Xan Errotabehere, Maddi Zubeldia, Koldo Amestoy, Gilles Riviere, Amaia Hennebutte, Bea Salaberri, Julie Mugica, Itziar Madina, Ixabel Ahamendaburu, Maialen Hegi Luku, Joana Etxart, Jean Michel Garat, Argia Olçomendi.

### **Bertsularitza**

Jérôme Etchebarne, Elixabet Etchandy, Xumai Murua, Ortzi Idoate, Gillen Hiribarren.

### **Gaurko musikak**

Txomin Larronde, Patrik Larralde, Michel Lastiri, Ekaitz Bergaretxe, Beñat Eyherabide, Julen Achiary, Pantxix Bidart, Mikel Erramouspé, Thierry Biscary, Patxi Amulet, Paxkal Indo, Jon Itçaina, Xabi Pellarini, Marie Bidart, Jurgi Equiza, Antton Larrandaburu, Allan Billi, Daniel Rodriguez, Pette Jaragoyhen, Txomin Dhers.

### **Koru kantua**

Frédéric Sorhaitz, Jean Curutcharry, Giovanni Prinelli, Elena Cler-Charriez, Jean-Pierre Malharin, Olivia Ipharraguerre, Marijo Manterola-Lacour, Dominique Lambert, René Zugarramurdi, Pantxika Iturriria.

### **Arte bisualak**

Christiane Giraud, Daniel Velez, Fanfan Privat, Elke Roloff, François Loustau, Antxon de Leyva, Séverine Dabadie, Régis Pochelu, Ttitto Aguerre, Arnaud Duny-Petre, Pascal Clerc, Maritxu Etcheto, Julie Laymond, Célia Grabianski, If Matxikote, Alexandra Vaquero, Martine Penanhoat, Patxi Beltzaitz, Aurélie Hustaix.

### **Zinema**

Ximun Carrere, Katti Pochelu, Joana Duhalde, Yohann Cornu, Miren Echeverria, Kattin Iphutcha, Graxi Irigarai, Jérôme Alkhat, Xabi Garat.